

6/1989 LEGEA, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

## ZIOEN ADIERAZPENA

I.– Administrazio Publikoa, funtsezko elementu da, zalantzarik gabe, gizarte modernuen garapena, aurrerapena eta ongi izatea lortu ahal izateko. Biztanlegoaren beharrei erantzutea xede duten zerbitzu eta sorozpen mailako egitekoak direla eta, arrunt leku nabarmena lortu du Administrazioak, poliki-poliki, agintaritza publikoen artean, izan ere, gizarte-sail ezberdinetatik etengabe eskatzen zaizkion zerbitzuak oso ugariak bait dira.

Euskal herritarren aurrerakoitasun eta ongi izateko itxaropenei erantzuna emateko ezinbesteko bidezkat jotzen da Administrazioa eta esanahi berezia hartzen du Euskadin, izan ere, eduki eta ekintza zehatzetan gauzatzen den eginkortasuna eman behar bait dio autogobernuari.

Hala ere, Legearen justifikabide diren helburuak betetzeak eta, arazoei benetako irtenbideak emango dizkien bide publiko, bizkor, emankor eta horiengandik hurbileko gisa, Lege hori antolatzeko eragozpen nabarmenak dakartzate, beste kasu batzutan ematen diren eragozpenez gain. Izan ere, Administrazio modernu baten taiuketa antolatzen ahalegin handia egin behar da, Administrazio hori ihardunean jarriko duten giza-baliabideez hornitu eta, dituen helburuak betetzeko prozedura eta metodo egokiz, zerbitzu publikoen kudeaketaren ardura hartuz. Gainera, Administrazio berria sortze eta sendotze-prozesuak sortarazi dituen beste arazo batzuri ere eman behar zaie irtenbide, Administrazio horren hazte-erritmoa ez bait da beti aurre-plangintzaren ondorio izan, autonomi garapenaren bultzakaden ondorio baizik. Egoera horrek, alde batetik, Estatuko eta horren Erakunde Burujabeetako eraketa periferikoek dituzten estamentuek autonomi Administrazioak eratutako zerbitzu eta organu berriekin batera jokatu beharra ekarri du eta, bestetik, Administrazio honen eta honen zerbitzuan diharduten langileen arteko zuzentza-mailako modu askotako harreman ugari, horien errejimenak eta egoerak, ahaleginak egin baldin badira ere, modu askotakoak izaten jarraitzen dutela.

Bestalde, euskal Administrazio kontzeptuak, erabat garatu dadin, guztientzako diren Instituzioak ezezik, Autonomia osatzen duten beste Administrazioak ere hartu behar ditu bere baitan. Eztabaidagarri ez den premisa hau oinarritzat hartuz, Administrazio Publiko guztien euskarri diren langileei tratamendu berdina eman behar zaie, zerbitzu egiten dioten erakundearentzat eskatzen den izaeraren aurkako lirakeen talde itxiak alde batera utziz.

Euskal herritarrek dituzten beharrei erantzuteko administrazio-emankortasunak duen ezinbesteko euskarri den giza-elementua hartzen du kontutan lege honek, Administrazioa bere osoan razionalizatzen ahaleginduz, egon dauden behar zehatzei erantzun ahal izateko, indarrean dauden legeek eskaintzen dituzten bideen barruan egokien diren formulak bilatuz. Lege honek, Autonomi Estatutuko 10.4 atalean ohartemandakoak garatuz, euskal funtzio publikoak izan behar dituen egitura-urratsak eman eta funtzionarien estatutu-errejimena finkatzen du, Estatuak emandako oinarritzko legeei konstituzioaren aldetik izan beharreko errespetua gordez. Horiek horrela izanik ere, ez da ahaztu behar, legea euskal Funtzio Publikoa behin-betiko eratzebidera eramango duen ildo besterik ez dela eta orain hasten den prozesu honen azken emaitza zehaztuko duten elementuak Administrazio bakoitzaren eguneroko ekintzak, Eusko Jaurlaritzari ematen zaion arau-garapenerako gaitasuna eta Legeak ohartematen dituen gainontzeko mekanismoak erabiltzea direla.

II.– Euskal Administrazio Publikoentzat, Arauketa baterakoirik gabe, erabat lurjota geldituko litzatekeen Funtzio Publikoaren euskal eredu bat lortzeko, lege honek eredu hori bideratzeko funtsezko elementu izan nahi du, horretarako, behar hainbat instrumentu artikulatuz. Alde horretatik, euskal autonomia osatzen duten Administrazio guztietako ia langilego oro hartzen du haren aginte-eremuak eta, aldi berean, hasierako eremua orekaz garatzeko beharrezko diren mekanismoak egituratzen ditu, horrek organizazio bakoitzari datxezkon ezaugarriak errespetatuz, faktore berdinek ezarritako egitura izateko bideak sortzen bait ditu.

Geroko euskal Funtzio Publikoaren eraikuntzaan ezinbesteko osagarritzat jotzen den Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundea sortzen da, prozesu horretan derrigorrez lankide ariak izango direnak bildu eta parte hartzeko gune izan eta euskal Administrazio Publiko guztien langilegoa-erikiko politika osatu beharko duten neurriekiko koordinaketa, aholkularitza eta proposamenak egiteko goi mailako organu gisa hartuz.

Autonomi Elkarteko Funtzio Publikoaren batasuna sendotzeko funtsezko faktoreetako bat aukeraketa egitea denez, Herri-Ardurularitzaren Euskal Erakundeari ematen dio Legeak aukeraketa-prozesu ezberdinak kidekatzeko gaitasuna, bai nahitaez epaimahaietako kide izanez, baita, batez ere, Erakunde Burujabe horren bidez, arauak administrazio ezberdinei aukeraketa egiteko eskaintzen dien aukeraz ere. Azken mekanismo honen bidez, aukeraketak egiteko guztientzako izango den organu bakarra lortzeko bidea zabaltzen da, hori poliki-poliki ezartzea euskal Administrazioen beren borondateak finkatuko duela. Hain garrantzi handiko gai honetan komeniko litzatekeen erizpide-batasuna lortzeko bide hori, Kidegotan edo antzeko Eskaletan sartzeko prozesuak kidekatzeko gutxieneko edukiak finkatzeko Jaurlearitzari emandako gaitasunaz amaitzen da.

III.– Legeak sistemaren egituraketak oinarri duen muintzat jartzen ditu lanpostu-zerrendak, administrazio-karrerako funtsezko elementu, lansari-sistemaren muinik garrantzizkoen eta, batez ere, administrazio-egiturak arrazoibideratzeko eragile bilakatuz. Lanpostuak eratzeko erabili behar diren funtsezko irizpideak eta prozedura-bideak ezartzen ditu legeak, baina lanpostu-zerrenda horiek erakundearen beharren benetako adierazpide izan behar dute beti eta horretan datza horien indarra. Ondorioz, lanpostu-zerrenda horiek izakera dinamikoa dute eta horrek Administrazio Publikoaren helburuak betetzeak eskatzen duen etengabeko egokiketa-prozesuari jarraitu beharra dakar, beharrak aldatuz bait doaz.

Era berean, funtzionariak Kidego eta Eskaletan biltzea ohartematen du legeak, horiek izatea lanpostu-zerrendak eratzeko beharrezko osagarri bait da eta honek sartzeko eta barne-mailatan gora egiteko guztientzako saioak arrazoibideratzeko bideak eskaintzen ditu. Argi eta garbi zehazten ditu legeak Sailen egitekoak eta hauek Funtzio Publikoaren egituran txertatzeko modua eta, aldi berean, agiango interes korporatibisten eraginak, iraganeko haizekeria patrimonialistak baztertuz, lanpostu-zerrendeiei, hauek euskal Funtzio Publikoaren lokarri-elementu direnez, ematen zaien lehentasuna bazter uztea eragozteko neurriak artikulatzen ditu. Gehigarritzko erabakietan, ematen zaizkien egitekoak kontutan hartuz onentzat jotzen diren Kidegoak sortzen ditu legeak, karrera edo lanbide batek bereak dituen eduki bateratzaileka eta administrazio-ihardun guztiei ohizkoak zaizkien kudeaketa-eginkizunak betetzearen arabera egituratuz.

IV.– Legeak, bere IV. Idazpuruan, funtzionari publikoen estatutu-errejimena jasotzen du, egoera horretara heltzeko eta funtzionari izatea galtzeko direlako moduak arautzen ditu eta hiru zutaberen gainean eraikitzen da administrazio-karrera: Gradua, barne-mailatan gora egitea eta tokiz aldatu ahal izatea. Azkenik, estatutu-errejimenari buruzko gainontzeko aldeak artikulatzen ditu, Funtzio Publikoaren beste ordenamenduetan ohizko izan denaren antzera, zenbait berarizkotasunen kaltetan gabe, eta horiek, garrantzi gutxikoak edo batipat teknika mailakoak direnez, ez dute beste inolako oharpiderik behar.

V.– Zerbitzu egiten dion herriaren bidezko eskabideei erantzungo dien elebidun Administrazioa sortzea ezin alboratuzko beharra denez, Funtzio Publikoaren hizkuntz normalkuntzari heltzen dio legeak bere V Idazpuruan. Horretako, bere formulazioa egiten du legeak, horrela, hizkuntz eskakizuna, lanpostuak berekin daraman elementutzat hartuz, oinarri izanik, aurreko legeetan egindako egiturari jarraiki. Ikuspuntu hau oinarritzat hartuz, funtzio publikoaren eremuari buruzko arau-formulazioak hiru alderi eragiten die: Agintze-indarra erabilgarri izan daitekeen uneari begira era ezberdina izango duen hizkuntz-eskakizuna lanpostuan sartzeko baldintza gisa sortzea; sartzeko deiak hizkuntz beharrei egokitzea, dauden eskabideei erantzuteko behar hainbateko giza-baliabidez hornitu ahal izateko Administrazioei bide emanez, eta, azkenik, hizkuntz eskakizuna eskatzerik ez denean, euskeraren ezagupena merezimendu gisa neurtzea.

VI.– Euskal Funtzio Publikoa osatzen duten langileen arauketa osatuz, lan-itunepeko eta behin-behingo langilegoa eta bitarteko funtzionariak hartzen ditu barne legeak. Estatutu-errejimena berdin ezartzea oharrematen da hauentzako, horien zerrendaren nolakoak berak dakartzan ezberdintasunak izan ezik, eta bestalde, aldi baterako sortu eta justifikatzen diren egoerek berez ez duten iraupen-maila lortzea eragozteko beharrezko mekanismoak jartzen ditu.

VII.– Aldi baterako erabakiek, funtsean, araupide-eremu berriari egokitzeko beharrezko neurriak, hori behin-betiko finkatu arteko aldi baterako errejimena eta, lege honek beteko duen araupide-eremurik ez zegoelako, haien lan-zerrendaren nolakoak eskatzen zuen estatutuan sartzerik izan ez zuten eta, beraz, Administrazioari aldi baterako zerbitzu egitera behartuta gelditutakoak euskal Funtzio Publikoan sartzeko bideei heltzen die. Era honetan, orain arte lan-zerrenda finkoan sartzeari galerazia zutenen bidezko eskabideei erantzuten zaie, horretako, berarizko lege-manuz edo jurisprudentzia-erizpidez horiek justifikatzearen kaltetan gabe, behar bezala egiaztatutako gaitasun-gradua onartu eta ebaluatzeari bide emango dien prozedurak erabiliz.

## I. IDAZPURUA

### EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEGOAZ

## I. ATALBURUA

### ERABAKI NAGUSIAK

1. Atala.– 1.– Euskal Herriko Autonomi Estatutuko 10. atalaren 4. idazkiak dioenaren arabera, lege honen helburua euskal Funtzio Publikoaren eta hori osatzen duen langilegoaren errejimen juridikoaren eraketa eta arauketa egitea da.

2.– Egitekoak betetzeko inpartzialtasun eta profesionaltasun eta, interes orokorrak kudeatzeko, eragingarritasun eta objetibotasun-irizpideen arauera eratzen da euskal Funtzio Publikoa.

2. Atala.– 1.– Honako langilego hauei ezarriko zaie lege hau:

a) Euskadiko Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorraren eta honen Erakunde Burujabeen zerbitzukoari,

b) Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren zerbitzukoari,

c) Lan-Harremanetako Kontseiluaren zerbitzukoari,

d) Foru eta Toki Administrazioak eta horien Erakunde Autonomoak,

e) abuztuaren 25eko, Unibertsitatearen Eraberrikuntzako 11/1983 Oinarri-legean oharremandakoen arabera, Euskal Herriko Unibertsitatearen zerbitzukoari, eta hori, unibertsitate-burujabetasunari begirune izatearen kaltetan gabe, eta

f) Batzar Nagusien zerbitzukoari.

2.– Lan-itunepeko langilegoak lan-Zuzenbideko arauak eta hura berariz aipatzen duten lege honetako aginduak izango ditu jaurpide.

3.– Lege hau ezarriz, arau bereziak eman ahal izango dira, legea osasun, irakaskuntza eta ikerlaritza-langileen berezitasunei egokitu ahal izateko.

4.– Lege honek ordezkotza-izakera du, legearen ezarpen-eremuak hartzen ez dituen euskal Administrazio Publikoen zerbitzuan diharduten langile guztientzat.

5.– Lege honetako euskal Administrazio Publikoei buruzko aipamenak, atal honetako lehenengo idazatian jasotzen direnei buruzkotzat joko dira.

## II. ATALBURUA

### EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ZERBITZUKO LANGILEGOA

3. Atala.– Honako hauek osatzen dute lege honen ezarpen-eremuak hartzen duen euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langilegoa:

- a) karrerako funtzionarioek,
- b) bitarteko funtzionarioek,
- c) behin-behingo langileek, eta
- d) lan-itunepeko langileek.

## III ATALBURUA

### ORGANUAK ETA HORIEI DAGOZKIENAK.

#### LEHENENGO SAILA

#### GOI MAILAKO ORGANUAK.

4. Atala.– Funtzio publikoan honako hauek dira goi mailako organuak:

- a) Eusko Jaurlaritza,
- b) Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Saila, eta
- c) Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua.

## BIGARREN SAILA

### EUSKO JAURLARITZA.

5. Atala.– Honako hauek dagozkio Eusko Jaurlaritzari:

- a) funtzio publikoaren arloari buruzkoan legegintza eta araudigintzarako ahalmena baliatzea,
- b) titulazio-Talde bakoitzari dagozkion gutxieneko eta gehieneko mailak zehaztea,
- c) Lan eta Gizarte-segurantzako Sailak proposatuta eta gai den Administrazioaren eremuan ordezkotzarik haundiena duten sindikaritze-erakundeei iritzia eskatu ondoren, Euskal Administrazioen zerbitzuko langilegoak greba egin dezan kasuetako, gutxieneko zerbitzuak bermatzeko beharrezko neurriak hartzea,
- d) Lehendakaritzea, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailburuak proposatuta, Autonomi Elkarteko Administrazioako langilegoari buruzko politika orokorra jartzea,
- e) Autonomi Elkarteko ordezkariak, lan-baldintzei buruz, funtzionarien ordezkariekin izan ditza-ten negoziaketetan haiei atxiki beharko zaizkieneko jarraibideak eta artezpideak ematea eta, hala behar izanez gero, lortutako akordioei balioa eta indarra ematea,
- f) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkariak langilegoarekiko harreman kolektiboetan erabili beharreko dituzten ekintza-erizpideak finkatzea eta lortutako akordioak onartzea,
- g) Euskal Autonomi Elkartearen zerbitzuko funtzionarien lansari-errejimenari eta gainontzeko langileen lansari-baldintzei ezartzeko arauak eta artezpideak urtero jartzea,
- h) Sail eta Erakunde Autonomo bakoitzarentzat egokiena izan daitekeen lanpostu-egitura ezartzea,
- i) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, lanpostuen sailkapen-erizpideak finkatzea eta horiei dagozkien zerrendak onartzea,
- j) euskal Administrazio Publikoetako enplegu publikorako eskaintza bateratua onartu eta argitaratzeko, erizpide eta artezpide nagusiak, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak proposatuta, jartzea,
- k) zerbitzutik behin-betiko aldentzeko zigorra ekar dezatenean, Autonomi Elkarteko Administrazioako funtzionarien aurka hasiera emandako zigor-espeditentekiko ebazpen-proposamenei erabakia ematea, eta
- l) indarrean dauden araupideak eman diezazkioten gainontzeko eginkizunak betetzea.

2.– Jaurlaritzak Sailburuen esku utzi dezake beren menpeko Sail eta Erakunde Autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzeko eskuduntza. Horrelakoetan, egitura organikoari buruzko arauetan ezarritako eskuduntza-banatzearen arabera, Sailek gertatuko dituzte zerrendak. Sailek, zerrendok jasoko dituzten aginduak eman aurretik, funtzio publikoaren ardura duen Sailaren onarpena beharko dute.

## HIRUGARREN SAILA

### LEHENDAKARITZA, ZUZENTZA ETA AUTONOMI GARAPENeko SAILA.

6. Atala.– 1.– Honako hauek dagozkio Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailari:

a) Funtzio Publikoari dagozkionetan arau orokorre buruzko proiektuak eratzea eta, Funtzio Publikoaren gaiekiko arloei dagozkienetan, lege-aurreproiektuekiko eta manu orokorre buruzko proiektuekiko txostena derrigorrez egitea,

b) zerbitzuko etekina hobetzeko eta lagilegoak barne-mailatan gora egiteko diren neurriak eta arioak suztatzea, koordinatzea eta, hala behar izanez gero, egiteratzea,

c) Autonomi Elkarteko Administrazioaren Funtzio Publikoari buruzko politika Jaurlaritzak eman-dako artezpideen arabera garatzea, bultzatzea, koordinatzea eta kontrolatzea,

d) Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzuko funtzionarien lansari-errejimenaren eta gainontzeko langilegoaren lansari-baldintzen ezarpena Jaurlaritzari urtero proposatzea,

e) Sail eta Erakunde Autonomo bakoitzarentzat onuragarriena den lanpostu-egitura proposatzea Jaurlaritzari. Lanpostuen zerrendak gertatzea, eta horiek onartzeko proposamena egitea Jaurlaritzari, lege honetako 5.2 atalean jasotako deskonzentrazio egoeran izan ezik. Lege honetako 18.2 eta 50.6 ataletan aurrikusitako lanpostuak eta funtzionariak berraxikitze erabakia hartzea, baldin eta Sailean aldaketak eragiten badituzte.

Enplegu publikorako eskaintza gertatu eta onartzea. Sailaren beraren ekimenez edo eragindako Sailen ekimenez, giza baliabideak arrazionalizatzeko programak gertatu eta onartzea, Sail bakarrerakoak direnak izan ezik,

f) langilego-erroldearen ihardunerako arauak jartzea,

g) langilego-arloan ikuskaritza orokorra egitea eta, Funtzio Publikoari dagozkionetan, ezarpen orokorreko arauak bete daitezen zaintzea,

h) funtzionarien eta lan-itunepeko langilegoaren ordezkariekin negoziatzeko Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkotza zehaztu eta hori gainontzeko Administrazioetako Funtzio Publikoaren arloan gaitasuna duten organuen aurrean izatea,

i) karrerako funtzionari edo lan-itunepeko langile finko izatera iristeko baztertze-indarreko saioetarako oinarriak, egitarauak eta horien edukia jartzea, horietarako deia egitea, horietako epai-mahaiak izendatzea eta saioak gainditu dituztenak izendatzea, jabetza ematea eta, hala behar izanez gero, akuratzea,

j) funtzionarietzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko merezimendu-lehiaketetarako deiak egitea eta horiekiko ebazpena ematea,

k) doakion Sailaren edo Erakunde Burujabearen txostena aztertu ondoren, funtzionarien administrazio-egoerak aldarrikatzea eta ihardunera berriro sartzeko baimena ematea,

l) zergati objetiboetatik edo zigor-espeditente bidez norbait kanporatu dutelako, lan-itunepeko langilego finkoaren akurapena amaitzeari eta, bidezkoa denetan, akurapena etetzeari buruzko ebazpena ematea,

m) Beste administrazio publikoren batean lan egiteko edo sailez aldatzeko zerbitzueginkizunak ematea, eta behinbehinekotasunez atxikitzea baldin eta eginkizun horiek sailez aldatzea badakarte,

n) norbere mailak lortu eta aldatzeari eta, hirurtekoetako, Administrazioan lehen egindako zerbitzuei onarpena ematea,

ñ) Jaurlaritzak onartutako banaketa-erizpideen arabera, emankortasun-osagarriagatikako zenbatekoak banan bana izendatzea eta egindako ohizkoez besteko zerbitzuengatik gain sariak ematea,

o) bitarteko funtzionariak izendatzea eta lantokitik kentzea, eta

p) indarrean dagoen araupideak eman diezazkion egiteko guztiak eta beste organu batzuri berariz eman gabe daudenak betetzea.

2.– Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomiaren Garapen-Saileko organuek beteko dituzte aurreko idazatian aipatzen diren egitekoak, Sail horren egitura organikoari buruzko dekretuan horretarako jar dadin egiteko-banaketaren arabera.

3.– Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailburuak eta doakion Saileko edo Erakunde Burujabeko arduradunak batera proposatuta, Jaurlaritzak, 1 idazatiko i), j), k), l), m), n), ñ) eta o) letretan, irakasle eta osasuneko langileei buruzkoan aipatzen diren agintepideak, zerbitzuen eginkortasunak hala eska dezanean, Sail edo Organu Burujabeei eman ahal izango dizkie.

## LAUGARREN SAILA

### FUNTZIO PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUA.

7. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoen arteko koordinakuntzako, aholkularitzako eta horietako langilego-politika osatzen duten neurriak proposatzeko eta Administrazio horien zerbitzuko langilegoaren partaidetzako goi mailako organu kolejiatua da Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua.

2.– Kontseiluaren txosten eta proposamenek ez dute behartze-indarririk izango.

3.– Kontseiluak eraketa eta ihardunerako bere arauak egin eta gai ezberdinetako adituekin lan-taldeak osatu ahal izango ditu.

8. Atala.– Honako hauek dagozkio Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluari:

a) Funtzio Publikoaren alorreko lege-aurreproiektuekiko txostenak bi hilabeteko epearen barruan egitea,

b) lege honetan esaten dena garatuz, Jaurlaritzaren Kontseiluak onar ditzan xedapen orokorreki buruzko proiektuak hilabeteko epean informatzea,

c) Funtzio Publikoaren arloan Estatuko Administrazioaren lege-aurreproiektuek eta erabaki nagusiek euskal Administrazio Publikoetan izan dezaketen eragina aztertzea eta koordinakuntzarako neurri egokiak proposatzea,

d) Euskal Administrazio Publiko guztietako Funtzio Publikoa eta langilego-politika elkarri egokitze beharrezko diren neurriak eta, bereziki, langilego-erroldeari, sarrera-sistemei, lanpostuen



zerrendei, gora egite eta administrazio-karrerari, funtzio eta lansari-mailako kidekaketari eta enpleguarekiko eskaintza publikoari buruzkoak eztabaidatzea eta proposatzea,

e) Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langilegoa euskalduntzeko eta Administrazio horien erakuntza eta iharduera hobetzeko neurriak proposatzea, eta

f) Gai den organuak horrela eska dezanean, euskal Administrazio Publikoen langilegoari buruzko erabaki eta ebazpenekiko txostena ematea eta Administrazioetako kideren batek bete-betean dagozkion gaiei buruz, aztertzeke eman diezazkion gaiez arduratzea eta horiekiko txostena egitea.

9. atala.– 1.– Honako hauek izango dira Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluko kide:

a) funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen Sailburua, hau buru izango dela,

b) Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio bost ordezkari, funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen Sailburuak langile-kopuru handiena atxikita dagoen Saitetako langileen kudeaketaren ardura duten goi-karguen artetik izendatuta,

c) Foru Diputazioetatik ordezkari bana, horietariko bakoitzak izendatua,

d) Udal Batzarretatik hiru ordezkari, Euskal Autonomi Elkartean ordezkari gehien duen elkar-teak izendatuta, eta

e) langilegoaren sei ordezkari, sindikatuak izendatuak, Euskal Administrazio Publikoetan dituzten ordezkarien arabera.

2.– Euskal Autonomi Elkarteko Administrazio Orokorreko ordezkari bat arituko da idazkarilanean. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen Sailburuak izendatuko du.

3.– Kide horien ordezekoak izenda daitezkeela jaso dezake Kontseiluaren arautegiak. Arautegi hori gizartearen interesak ordezkatzeko dituzten erakundeek parte hartzen duten administrazio arteko organu kolejiatuei aplikagarria zaien erregimen juridikoari egokituko zaio. Akordioak hartzerakoan berdinketarik egongo balitz, Kontseiluko buruak emango luke boto ebazlea.

## BOSKARREN SAILA

### SAILAK.

10. Atala.– 1.– Honako hauek dagozkio Sail bakoitzari, honi atxikitako langilegoari dagozkionetan:

a) Behin-behingo langileak izendatzea eta lan-itunepeko aldi baterako langileak akuratzea,

b) Konpatibilitate-espeditenteak ebaztea,

c) Dei publikoa egin ondoren, izendapen jareko lanpostuak betetzea,

d) Derrigorrezko eta gorputzeko ezinaren ondoriozko jubilazioak aldarrikatzea,

e) Saileko lanpostuen zerrendak proposatzea eta, 5.2 atalean aurrikusitako egoeran, gertatu eta onartzea. Lege honetako 18.2 eta 50.6 ataletan aurrikusitako lanpostu eta funtzionari-berratzitzeak erabakitzea, baldin eta Sailez aldatzerik ez badaukarte.

Bere Sailerako diren giza baliabideak arrazionalizatzeko programak gertatu eta onartzea,

f) Lanpostuak betetzeko aldi baterako izendatzea eta zerbitzu-ordezkoak ematea, Sailez aldatzea ekar ez dezatenean,



g) Funtzionarioen eta lan-itunepeko langilegoaren ordezkariekin negoziatzeko Sailaren ordezkariak izendatzea,

h) Indarrean dauden erabakien arabera, zentzapide-aginteez baliatzea, lan-itunepeko langile-  
ren bat zerbitzutik behin-betiko alden du eta kanporatzea izan ezik,

i) Baimenak ematea, eta

j) Orohar, langilegoaren buruzagitza eta administrazio-ekintzak eta ohizko kudeaketa egitea,  
baita indarrean dauden araupideek eman diezazkioten beste ekintza guztiak ere.

2.– Saileko organuek beteko dituzte aurreko idazatian aipatzen diren egitekoak, egitura organi-  
koari buruzko dekretuan horietarako jar dadin banaketaren arabera eta araudiz erabaki daitezen  
prozedura-arauei atxikiz.

3.– Behin-behineko langileak izendatzea eta e) letran jasotakoa izan ezik, 1 idazatian aipatzen  
diren eskuduntzak, horiei atxikitako langileei dagokienez, Erakunde Autonomoetako organuek  
gauzatuko dituzte, euren egitura eta jardutearauetan ezarrita dagoen eskuduntza-banaketaren  
arabera.

## SEIGARREN SAILA

### HERRIOGASUN ETA DIRUBIDEETAKO SAILA.

11. Atala.– Honako hauek dagozkie Herriogasun eta Dirubideetako Sailari:

a) Autonomi Elkarteko Administrazioako langilegoaren gastuak atxiki beharko zaizkien artezpi-  
deak, ekonomia eta aurrekontu-politika orokorraren barruan, Jaurlaritzari proposatzea,

b) Gastuetan aldatetaren bat ekar dezaketen lanarigoarekiko neurriei buruzko txostena egin  
eta, hala behar izanez gero, horiek artezteak, eta

c) Aurrekontu-zerrendak Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailarekin  
eratzea.

## ZAZPIGARREN SAILA

### GAINONTZEKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO JAURTZE-ERAKUNDEAK.

12. Atala.– Gainontzeko euskal Administrazio Publikoetan, horietako bakoitzeko jaurtze-erakun-  
deak beteko ditu funtzio publikoari buruzko egitekoak, horiei ezarri beharreko berarizko arauetan  
aitorturik izan ditzaten ahalpideen arabera.

## II IDAZPURUA

### FUNTZIO PUBLIKOA EGITURATZEAZ ETA ANTOLATZEAZ

#### I ATALBURUA

##### LANPOSTU-ZERRENDAK

13. Atala.– Euskal Administrazio Publikoek bere barne-egiturak arrazoibideratu eta eratu, langilego-beharrak finkatu, lanpostuetan jarduteko eskatutako baldintzak zehaztu eta horietako bakoitza sailkatzeko baliabidea dituzte lanpostu-zerrendak.

14. Atala.– 1.– Lanpostu-zerrendek aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu guztiak hartu beharko dituzte, funtzionarienzat, lan-itunepeko lanari finkoentzat eta behin-behingoentzat gordetakoak bereiziz.

2.– Funtzionarienzat gordetako lanpostuetan beste Administrazio Publikoetako funtzionarioek lor ditzaketen lanpostuak horiek betetzeko doakion sistemaz finkatuko dira.

15. Atala.– 1.– Lanpostu-zerrendek honako hauek adieraziko dituzte nahitaez horietako bakoitzeko:

- a) Izena,
- b) Atxikita dagoeneko Saila edo Zuzendaritza,
- c) Dedikazio-errejimena,
- d) Hori betetzeko eskatutako baldintzak, horien artean derrigorrez hizkuntz eskakizuna eta horrek indarra galtzen dueneko eguna, eta
- e) Bakoitzean beharrezko izan dadin zein Talde, Kidego edo Eskala edo lan-kategoriatan sartuta dagoen. Lanpostuak Talde bati baino gehiagori aukeran eman ahal izango zaizkie, beti ere horietako maila-arteakoan sartutakoak balira behintzat.

2.– Funtzionarienzat gordetako lanpostuetan, honako hauek ere adieraziko dira:

- a) Lanpostuari eman zaion maila, 1etik 30era bitartekoa,
- b) lanpostu-horniketarako sistema eta, hala beharko balitz, zein Administrazio Publikotako funtzionarioei ematen zaien lanpostuak betetzeko aukera,
- c) Izendatua duten berarizko osagarria.

16. Atala.– Lanpostuen zerrendak, eta horietan izan daitezkeen aldaketak Euskal Agintaritza-Aldizkarian argitaratuko dira; edota, Foru Diputazioetakoak edo Udalbatzarretakoak direnean, Kondaira-Lurraldekoan.

17. Atala.– Aurrekontuetan ohartemandakoei egokituko zaizkie lanpostu-zerrendak, eta ez dute jasoko dagokion ekitaldirako aurrekontu-zerrendetan ohartemandako kredituek erantzun ezineko diru-hornidura duen lanposturik.

18. Atala.– 1.– Egitura organikoan egin daitezkeen aldaketak onartzeak, aldi berean, horiei dagozkien lanpostuen zerrendak onartzea ere eskatuko du. Nolanahi ere, lanpostuen zerrenden bidez sortu, aldatu edo kenduko dira lanpostuak.

2.– Unitate edo Zuzendaritza Zentro bati atxikitako lanpostu ez singularizatuak, zerbitzuko premien arabera, Sail edo Erakunde Autonomo bereko eta ezberdineko beste Unitate edo Zuzendaritza Zentro batzuei berratxiki dakizkieke, herri berean. Beteko dituzten egitekoak ordura arte gaineratuta zituztenen antzekoak izango dira.

Lanpostuak berratxikitze beharrezkoa da zioak jasoko dituen memoria aurkeztea. Memoria horretan, hartzen den neurriaren egokitasuna justifikatuko duten arrazoiak egiaztatu beharko dira. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen organuak emandako aldeko txostena ere beharko da, aurreko lerroaldean exigitzen diren eskakizunak betetzeari buruzkoa.

Atal honetan xedatutakoaren arabera berratxiki daitezten lanpostuetan ari diren funtzionarioek berorietan jarraituko dute eta ordura arte zituzten baldintza berberak izango dituzte.

3.– Atal honetan xedatutakoaren ondorioetarako ez dira aintzakotzat hartuko lanpostuak atxikita daudeneko Sail edo organuen izenei baino ez daragieten aldaketak, eta ez badaragiete horien egitekoen edukari ez eta eskakizunei ere. Hala ere, lanpostuen zerrenden egoera uneoro nolakoa den jakin ahal izateko, eta horien kudeaketa erraztu ahal izateko, funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duten organuek eguneratu egingo dute, aldian-aldian, lanpostuei buruzko informazioa. Agiri-eredu bat gertatuko da horretarako; aldaketok eta aurreko epealdian lanpostuetan izandako gainerako aldaketak jasoko dira, horien eragile izan diren egintza juridikoak adieraziz.

19. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoetako lanpostuak funtzionarioek beteko dituzte eskuarki.

2.– Lan-itunepeko langile finkoentzat honako hauek bakarrik gorde ahal izango dira:

a) Egitekorik nagusia ofizio batetan jardutea duten lanpostuak, eskuzko teknikak erabiltzea batez ere beharrezko izan eta horiek betetzeko ikasketa-titulaziorik behar ez dezanekoan,

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa-Sailaren menpeko ez diren irakaskuntza edo gaitzuntza-zentruak atxikitako irakaskuntza-lanpostuak,

c) Eraikuntzei, tresneriei eta antolapideei bere onean eusteko eta iraunarazteko alorrei, arte grafikoei eta inkestei dagozkien tresnerietako lanpostuak, horien egitekorik nagusia zerbitzuek jarduteko beharrezko den azpegiturari berari eustea edo erabakiak hartzeko beharrezko diren azterlanak ahalbideratzeko datu objetiboak eskaintzea bait da,

d) Izaera bereziko lanpostuak, horietan jarduteak heziketa akademiko zehatzik behar ez duenean, eta egon dauden Kidego edo Eskaletako langileek bete ezin dituztenean eta izan duten edukia dela eta Kidego edo Eskala berriak sortzea aholkagarri egin ez dezanekoan,

e) Kudeaketako organu bereziei, foru eta tokiko Erakunde Burujabeei eta Autonomia Elkarteko Administrazioaren merkataritzako Erakunde Burujabeei atxikitako lanpostuak, menpeko diren Administrazioaren aldetiko agintaritzak, nahitaezko lege-aholkularitza, herri-sendesmena, ikuskaketa, zaingoa edo ekonomi eta dirubide-kudeaketaren arakaketa dakartenak salbuetsiz, horrelakoetan funtzionarietzat gordeko bait dira, eta

f) Administrazio edo laguntza-egitekoak dituzten atzerriko lanpostuak.

g) Duten izaera edo atxikita daudeneko organu edo banakoek bete dezaten zerbitzuaren zernolakoak kontutan izanik, Eusko Legebiltzarraren legez finka daitezten lanpostuak.

## II ATALBURUA

### AURREKONTU-ZERRENDAK

20. Atala.– Funtzionario Talde eta Kidego bakoitzari eta lan-itunepeko langilegoa sailkatuko deneko kategoria bakoitzari dagozkien aurrekontu-zerrendak edo hornitutako lanpostu-zerrenda euskal Administrazio Publikoetako aurrekontuek finkatuko dituzte.

21. Atala.– 1.– Funtzionarioei dagozkien aurrekontu-zerrendek, ondoren aipatutako kontzeptuen arauera eraturako kreditu-horniduren zerrenda emango dute:

- a) Talde bakoitzari dagozkion oinarrizko lansariak,
- b) Maila bakoitzeko lanpostuei dagozkien lan-izendapenagatikako osagarriak,
- c) Izendatuak dituzten lanpostuen berarizko osagarriak, eta
- d) Emankortasun-osagarria, gastu-egitarau bakoitzak hartzen duen langilegoaren erabateko gostearen ehunekotan adierazia.

2.– Lan-itunepeko langilegoari dagokionez, dagozkien kreditu-hornidurak ere sartuko dituzte aurrekontu-zerrendek, ezarri beharreko izan daitezen itune kolektiboetan jarritakoaren arabera ordaingarriak diren lansari-kontzeptuei jarraiki eratuak.

3.– Langilegoaren eskubide izan litezen gain sariak eta kalte-ordainak ordaintzeko, orotariko hornidurak ere jarriko dira aurrekontuetan. Ekonomi eskubideak aitor ditzaten epaimahaiak sendetsitako epaiak betearazteko jarritako diruek ere azaldu beharko dute, baita iraunkortasunik edo aurrez ikusi gabeko lanpostuei ez dagozkien presakako edo noizbehinkako lanei aurre egiteko jarritakoek ere.

4.– Behin-behingo langilegoarentzako horniduretan lanpostu bakoitzarentzat finkatutako lansaria banaka adieraziko da.

## III ATALBURUA

### ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA

22. atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoek giza baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, euren buruak antolatzeko duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ostean. Programok euren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei zein lan-kontratuko langileei buruzkoak izango dira, eta euren eraginpeko alorrean giza baliabideak ahalik ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduketak hartuko dituzte batera. Eta hori aurrekontuen mugen barne egin beharko da, gobernuorganuek langileei buruzko politikarako finka ditzaten jokabideen arabera.

2.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan, enplegu-planetarako aplikagarriak diren arau orokorretan ezarritako neurri guztiak edo batzuen batzuk sar daitezke. Horretaz gain, borondatezko lan-utzialdian daudenentzat, aldeztu aurretik jubilatu daitezzenentzat, jarduneko zerbitzu-aldia uzten dutenentzat edo behin-betiko baja hartzen dutenentzat pizgarriak ere sar daitezke.

3.– Lege honetan eta Administrazio Publiko bakoitzak eman dezan arautegian xedatutakoa beteko da giza baliabideak arrazionalizatzeko programetan.

4.– Euren aplikazio-arautegi berezia beteko da enplegu planetan.

5.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programak daragien langileek beste Administrazio Publiko batzuetara berratziki daitezke. Era eta modua Administrazioen arteko hitzarmenetan ezarriko dira.

6.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programek, Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuan, Sail, Erakunde edo administrazio-alar bati edo hainbati eragin diezaiekete. Funtzio publikoaren alorrean eskuduntzak dituen Sailak onartuko ditu programok, ogasun alorrean eskuduntza duen Sailak emandako aldeko txostena beharko duela alde aurretik. Sail bati baino ez badiote eragiten, aipatutako Sail horien alde aurretiko aldeko txostena izan ondoren, Sail horrek onartuko ditu.

Programok gertatzeko ekimena, eragindako Sail edo Erakundearen esku geldituko da edo, elkarlanean, funtzio publikoaren eta ogasunaren alorretan eskuduntza duten Sailen esku. Azken egoera honetan, aplikatutako Sailen txostena beharko da.

23. atala.– 1.– Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira.

2.– Enplegu publikorako eskaintzan, bete behar diren plaza betegabeak adieraziko dira, bai funtzionariak eta bai lan–kontratuko langile finkoenak ere. Plazok funtzionarien lan–kategoria edo taldeka, kidegoka eta eskalaka sailkatuko dira. Plaza horiek sartzeak ez du esan gura alde aurretik lanpostu horien lehiaketa egin behar denik funtzionarien artean.

3.– Ezingo da plazak betetzeko aukeraketaprobetarako deialdirik egin, enplegu publikorako eskaintzaren arabera plaza horiek bete beharrekoak ez badira.

24. atala.– Enplegu publikorako eskaintzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira edo, Foru Diputazio edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoetako aldizkarietan. Azken kasu honetan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da eskaintzen laburpen bat.

## IV ATALBURUA

### LANGILEGOA AUKERATZEA

25. Atala.– 1.– Euskal Herri-Administrazioek ageriko deialdiz eta nornahirentzako norgehiagoka, lehiaketa edo norgehiagoka-lehiaketa bidez aukeratuko dute euren langilegoa, funtzionaria zein lan-itunepekoa izan, horietan, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak bermatuko direla.

2.– Egin beharreko saio-moeten eta bete beharreko egitekoen edukiaren arteko egokitzapena gordeko dute aukeraketa-prozedurek; horretarako, orotariko edo berarizko ezagupen-saio teorikoak eta praktikoak, test psikoteknikoak, elkarrizketak, baztertze-indarreko gaikuntza-ikastaroak, praktika-aldiak eta baztertze-indarreko prozeduraren objetibotasuna, zentzuzkotasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko egokiak izan daitezzen gainerako sistemak erabili ahal izango dira.

26. Atala.– 1.– Izan nahikoen jakite-maila zehazteko eta horiek aukeraketan duten lehen-tasun-hurrenkera finkatzeko, gaitasun-saio teorikoak eta praktikoak egitean datza norgehiagoka.

2.– Izan nahikoek emandako eta egiaztatutako merezimenduak dagokion deialdian ezarritako taularen arauera kalifikatzean datza, eta ez beste ezertan, lehiaketa, horiek aukeraketan duten lehentasun-hurrenkera finkatuz.

3.– Gorago aipatutako bi sistemok aukeraketa-prozeduran hurrenez-hurren gauzatzean datza norgehiagoka-lehiaketa, eta lehiaketa-aldiaren baloraketa ez da inoiz norgehiagokan lor daitekeen gehieneko puntuaketaren ehuneko berrogeita bostetik gorakoa izango.

27. Atala.– 1.– Karrerako funtzionariak eta langilego finkoa norgehiagoka bidez aukeratuko da, edo norgehiagoka-lehiaketa bidez, bete beharreko egitekoen nolakoa dela eta, merezimenduak edo esperientzia baloratzea egoki gertatuko balitz. Salbuespen gisa, aukeraketa lehiaketaz gauzatu daiteke, baldin eta, zernolako bereziak dituen lanpostua izanik, jakineko merezimenduak dituen, berarizko esperientzi maila edo ezagupenei buruzko saio objetiboan bidez ezin egiazta daitezkeen baldintzak dituen langilegoak bete behar baditu.

2.– Baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioaren dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

28. Atala.– Karrerako funtzionari izatera iristeko baztertze-indarreko saioetarako deiek, aurrez aipatutakoez gain, trebaketa-ikastaroak zein praktika-aldiak burutzea jarri ahal izango dute aukeraketa-prozedurako beste fase gisa.

Ikastaroetara eta praktika-aldietara irits daitezzen izan nahikoen kopurua ez da deian emandako lanpostuena baino haundiagoa izango eta praktiketan dabilzan funtzionari izendatuko dira horiek. Egoera horretan dauden bitartean, nolahi ere, titulodun Taldearen oinarrizko lansariak jasoko dituzte eta Talde horri emandako lan-izendapenagatikako osagarriaren gutxieneko mailaren balio-kidea izango dute.

Trebaketa-ikastaroak eta praktika-aldiak bat eginda ez dute hemezortzi hilabetetik gora iraungo eta, deian oharmandako kalifikatze-prozeduraren arabera, horiek ez gainditzeak izan nahikoa aukeraketa-prozesutik kanpo uztea eta funtzionari izateko izan litzakeen eskubideak galtzea ekarriko du.

29. Atala.– 1.– Euskadiko Autonomi Elkarteko eta horko Erakunde Burujabeetako funtzionari izatera iritsi aurretiko baztertze-indarreko trebaketa-ikastaroak Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emango ditu.

2.– Gainerako euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko langilegoa aukeratzea edo, hala behar izanez gero, funtzionari izatera iritsi aurretiko baztertze-indarreko trebaketa-ikastaroak egitea, aipatu Erakundeak horretako izenpetutako itunez burutu ahal izango ditu.

Itune horiek baliokidetzat aldarrikatutako Kidego eta Eskaletan sartzeko izenpetuko dira batipat.

30. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionari edo langile finko izateko baztertze-indarreko deiek, nahitaez, honako hauek jaso beharko dituzte:

a) Lanpostu hutsen kopurua, Taldea, Kidegoa eta Eskala edo zein lan-kategoria dagokien eta barne-mailatan gora egiteko uzten den ehunekoa,

b) Izan nahikoek bete behar dituzten baldintzak,

c) Saioak, egitarauak eta, behar balitz, merezimenduen zerrenda, baita baloraketarako erizpi-deak eta arauak ere,

d) Aukeraketarako epaimahaiaren edo teknika-organuaren osakera, eta

e) Hala behar izanez gero, baztertze-indarreko ikastaroaren edo praktika-aldiaren zernolakoak finkatzea.

2.– Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak proposatuta eta Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erizpen-idazkia egin ondoren, karrerako funtzionari eta lan-itunepeko langile finko izatera iristeko berdinak izango diren gutxieneko egitarau eta eduki bateratzaileak jarriko ditu Jaurlaritzak, nolana ere, horietako bakoitzean sartzeko direnak errespetatuz.

3.– Deialdiak eta horiek arautuko dituzten oinarriak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira, edo, Foru Diputazio edo Udal Batzarrenak badira, Lurralde Historikoetako aldizkarietan, indarreango legediak beste aldizkari ofizial batzuetan argitaratzea berenberegiz eska dezakeenaren kaltetan gabe.

31. Atala.– 1.– Aukeraketarako epaimahaiak edo teknika-organuak erabat burujabe izango dira euren egitekoetan, prozeduraren objetibotasunaren erantzukizuna izango dute eta deian ematen diren oinarriak beteko direla bermatuko dute.

2.– Epaimahaiak osatzean arreta haundiz zainduko da espezialitate-erizpidea betetzea. Epaimahaiakideetatik erdiak behintzat izan beharko du sartzeko eskatutako ezagupen-alor bereko titulazioa, eta denek izan beharko dute ikasketa-maila bereko edo goragoko titulazioa. Epaimahaietan beti izango da Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak izendatutako ordezkari bat, eta beste bat langilegoarena, sindikatuetaordezkari izendatua.

3.– Trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango da hautaketa-epaimahaietan edo organo teknikoetan, salbu eta hori egokia ez dela behar bezala justifikatzen bada. Ordezkariak orekatua egongo da lau kide baino gehiagoko organoetan sexu bakoitzak, gutxienez, %40ko ordezkariak duenean, eta gainerako organoetan, berriz, sexu biak ordezkariak daudenean.

4.– Aukeraketa-aldiak dituen saio guztietako edo batzuetako, epaimahaiak beren lanetarako aholkulariak hartu ahal izango dituzte, eta hauek beren teknika-berarizkotasunetan aritzera mugatuko dira.

32. Atala.– 1.– Aukeraketarako epaimahaiak edo teknika-organuak aukeratutako izan nahikoen kopurua eta deiaren gai den lanpostu-kopurua berdina izango da, mugapen hori hausten duten proposamenak erabat eta berez baliorik gabeak bait dira.

2.– Aukeraketarako epaimahaiak edo teknika-organuen erabakiak izendaketa dagokion organuarentzat baztertze-indarrekoak izango dira, honek, Arduralaritzaren Auzipidetakoko legearen oinarrietan arauera, ikuskeratik ahal izatearen kaltetan gabe.

33. Atala.– 1.– Bitarteko funtzionariak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzeko saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langilegoak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egiteko eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.



2.– Gizartetik baztertutako jendea birgizarteratzea suztatu ahal izateko, euskal Administrazio Publikoek bere aldi bateko lanbide-egitarauak jarri, edo herri nahiz norbanako-alorreko beste erakundeekin ituneak egin ahal izango dituzte.

## V ATALBURUA

### LANGILEGOAREN ERROLDEA

34. Atala.– 1.– Langilegoaren erroldetara bana izango dira euskal Administrazio Publikoetan, eta horien zerbitzuko langile guztiak sartuko dira erroldetara.

2.– Errolderatutako langileen administrazio-zereginari doazkion gorabehera guztiak erasoko dira langileen erroldetan, baina inola ere ez ordea arrazari, erlijioari edo iritziei buruzko oharrik.

3.– Nominan ez da inolako lansaririk jasotzerik izango, aurretiaz langile-erroldetan horiek onartu dituen ekintza edo erabakia jasotzen ez baldin bada.

4.– Erroldetan jasotako datuez baliatzea Konstituzioaren 18. ataleko 4. idatzian oharmandako mugen baitakoa izango da. Errolderatutako langileak inolako trabarik gabe bere espedientera sartzeko eta horretan azaltzen diren alderdiei buruzko ziurtagiriak eskuratzeko eskubidea izango du.

5.– Langilego-erroldetaren antolakuntza, iharduera eta edukia araudiz zehaztuko dira. Nolanahi ere, gutxieneko edukiera bateratzaileak, errolderatutako ekintza edo erabakia aldarrikatzen edo egiten duten ondorioak eta gainerako langilego-erroldetako koordinaketa berma dezaten neurri teknikoak ezarriko dira.

6.– Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzuko langilegoaren erroldetara Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailari datzekio.

## III IDAZPURURA

### EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIEI BURUZ

#### I ATALBURUA

##### ERABAKI NAGUSIAK

35. Atala.– Legezko izendapenez, administrazio-Zuzenbidez araututako lanbide-harremana dutela etengabeko zerbitzuak egin eta aurrekontu-diruz hornitutako lanpostuak betetzen dituzten edo lege honetan oharmandako egoeraren baten daudenak dira karrerako funtzionari.

#### II ATALBURUA

##### FUNTZIONARITZA LORTZEA ETA GALTZEA

36. Atala.– 1.– Kidego edo Eskala bateko aurrekontu-zerrendako lanpostuetan sartuz lortzen da euskal Administrazio Publikoetako karrerako funtzionari izatea, ondorengo eskakizunak hurrenez hurren betez:

- a) baztertze-indarreko prozedura gainditzea,

- b) dagokion agintariak emandako izendapena, eta
- c) arauzko epearen barruan lanpostuaz jabetzea.

2.– Transferentzien ondorioz euskal Administrazio Publikoetan sartu diren edo sar daitezzen beste Administrazio Publikoetako funtzionarioek sartu direneko Administrazio bereko funtzionario-egoera lortuko dute, lehen zuten Kidego edo Eskalako Taldea gordeko zaiela, baita aitorturik luketen bere mailari datxezkon diru-eskubideak ere.

37. atala.– 1.– Honako arrazoi hauetakoren batengatik uzten zaio Euskal Administrazio Publikoetako funtzionari izateari:

- a) doakionak idatziz uko eginez, Administrazioak onartzen badu,
- b) zerbitzutik behin-betiko kentzea ekar dezan sendetsitako zentzabide-zigorra,
- c) funtzionariarekin lotutako lanpostuari edo enpleguari dagozkion egitekoak betetzeko erabateko ezgaitzea edo ezgaitze berezia dakarren pena nagusia edo osagarria, epaiz zehaztua,
- d) espainiar nazionalitatea, Europako Batasuneko kide den beste Estatu batekoa edo beste edozein Estatutakoa galtzea, alor horretako legedi orokorraren eta aplikagarriak diren nazioarteko ituneen arabera,
- e) derrigorrezko edo borondatezko jubilazioa, eta
- f) heriotza.

2.– Funtzionari izatea galduko dute, halaber:

a) Zerbitzu berezietako egoeran, edozein Administrazio Publikotako beste kidego edo eskala batean jardunean egoteagatik edo familiaren bateratzeagatik borondatezko lan-utzialdiko egoeran eta seme-alabak jagoteko eskatutako lanutzialdi egoeran deklaratu zireneko baldintza desagertuta, edo denbora igarota, jarduneko zerbitzura berriz sartzeko eskatu ez dutenek interes partikularrarengatik borondatezko lan-utzialdi egoeran sartzeko behar hainbat benetako zerbitzu ez dutenean.

b) Derrigorrezko lan-utzialdi egoeran egonik, euren kidegoari edo eskalari dagozkion lanpostuak betetzeko dei egindako lehiaketetan parte hartzen ez dutenek edo, Administrazioak horrela erabaki dezanean, birlaneratzean jarduneko zerbitzuan sartzen ez direnek, edo, destinoaren zain egon eta derrigorrezko lan-utzialdikoak izanik, sektore publikoan lanpostuak betetzen dituztenek, interes partikularrarengatik borondatezko lan-utzialdi egoeran sartzeko behar hainbat benetako zerbitzu ez dutenean.

3.– Nazionalitatez aldatu dutelako edo ezintasun iraunkorragatiko jubilazioa dutelako funtzionari galduta duten funtzionarioek birgaitzea eska dezakete, horretarako ezar dadin prozeduraren arabera.

4.– Euskal Administrazio Publikoek, doakionak hala eskatzen badu, birgaitzea eman diezaiekete ezgaitzeko pena nagusia edo osagarria izan dutenei, egindako delituaren zernolakoak eta garrantzia kontutan hartuz.

38. Atala.– 1.– Funtzionari publikoen derrigorrezko jubilazioa ofizioz deklaratu da hirurogeita bost urte betetzean.

Aurreko lerroaldean xedatutakoa gorabehera, deklarazio hori ez da egingo funtzionarien jarduneko zerbitzuaren egoera amaitu dadin arte, hau da, egoera horretan, euren borondatez, goitik jota hirurogeita hamar urte bete ditzaten arte jarraitzen badute. Euskal Administrazio Publikoek emango dituzte eskubide horretaz baliatzeko beharrezkoak diren prozedura-arauak.

Jubilatzeko arau bereziak dituzten kidego eta eskaletako funtzionariak, aurreko lerroaldean xedatutakotik kanpo geldituko dira.

2.– Nahiaitezko jubilazioa, ofizioz nahiz doakionak eskatuta, eta dagokion espedienteari hasera eman ondoren aldarrikatu ahal izango da, funtzionaria, legez ezarritako jubilazio-adina izan gabe, bere egitekoak betetzeko etengabe gai ez denean edo bere egitekoak egokiro betetzeko gorputzeko ezina edo ahalmenak gutxiturik dituenean.

### III ATALBURUA

#### FUNTZIONARIEN SAILAK

39. Atala.– 1.– Funtzionariak, Kidegoan sartzeko eskatzen den titulazio-mailaren eta bete beharreko egitekoen bateratasunaren arabera, Kidegoka bilduko dira. Kidegoen barruan, egitekoen espezializazioa kontutan hartuz, Eskalak izan daitezke.

2.– Guztientzako sarrerako eta barne-mailatan gora egiteko frogak arrazoibideratu ahal izateko, lanpostu-zerrendak antolatzeke helburuak Kidegoek osatzen dituzte.

40. Atala.– 1.– Eusko Legebiltzarrak legez sortu, aldatu edo kenduko ditu Kidego eta Eskalak eta honako hauek zehaztu beharko ditu:

- a) horren izena,
- b) horietan sartzeko eskatuko den titulazioa,
- c) bete beharko dituzten egitekoen definizioa, horien artean administrazio-organuek izendatuta dituzten ahalmen, egiteko edo aginteak ez bait da sekula sartzerik izango, eta
- d) horiek dituzten egitekoen espezialitatea dela eta, tratamendu berezia behar duten gaien araudia garatzeko erizpideak ezartzea.

2.– Lehendik dauden beste batzuri izendatutakoen antzeko egitekoak edo berdinak betetzeko ez da Kidego edo Eskalarik sortzerik izango.

41. Atala.– Sailartekoak izango dira Autonomi Elkartearen Administrazioiko Kidegoak, eta Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailaren menpe izango dira organikoki, Sail edo Erakunde Burujabe bakoitzarekiko iharduneko menpekotasunaren kaltetan gabe.

42. atala.– Kidego edo eskala jakin batera lanpostuak eksklusibotasunez atxiki daitezke, atxikipena lanpostu horietan bete beharreko egitekoen izaerari darionean eta horrela ezar dadinean lanpostuen zerrendetan. Kidego edo eskala baterako lanpostuak gordetzeak ez ditu aurrez juzgatzeko lanpostu horiei izendatu beharreko osagarrizko lansariak, ez eta guztientzako edo gutxienezko lansariak finkatuko direla bermatzen ere.

43. Atala.– Funtzionarien Kidegoak, sartzeko eskatutako titulazio-mailaren arabera, honako Talde hauetan bilduko dira:

- A) Doktore, Lizentziatu, Injenieri, Arkitektu titulua edo baliokidea.
- B) Teknika-Injenieri, Unibertsitate-Diplomadun, Teknika-Arkitektu, Lanbide-Hezkuntzako 3. mailako titulua edo baliokidea.
- C) Batxilergo, Lanbide-Hezkuntzako 2. mailako titulua edo baliokidea.
- D) Eskola-Gradudun, Lanbide-Hezkuntzako lehenengo mailako titulua edo baliokidea.
- E) Eskolaritate-egiaztagiria.

#### IV ATALBURUA

##### ADMINISTRAZIO-KARRERA

##### LEHENENGO SAILA

##### ERABAKI NAGUSIAK

44. Atala.– Funtzionarien administrazio-karrera norbere graduaren eta lehiaketaz edo izendapen jarez beste lanpostu batzuetara iristeko ahalbidez gauzatzen da, baita Talde bereko edo goragoko beste Kidego batzuetara barne-mailako gora egiteez iristeko ahalbidez ere.

##### BIGARREN SAILA

##### NORBERE GRADUA

45. Atala.– 1.– Funtzionari guztiek izango dute bere gradua, lanpostuak sailkatzen direneko hogeita hamar mailetariko bat hain zuzen.

2.– Dagokion mailako lanpostu bat edo gehiago bi urte edo gehiago jarraian edo hiru urte tar-teak eginez betez eskuratzen da norbere gradua.

Horrez gainera, Funtzio Publikoko Euskal Kontseiluaren txostena jaso ondoren Eusko Jaur-laritzak edo, dituzten aginte-eremuen barruan, gainerako euskal Administrazio Publikoetako jaurtze-erakundeek jar ditzaten berarizko ikastaroak edo gainerako baldintza objetiboak gaindituz ere lortuko da norbere gradua. Ikastaroetara joateko prozedura eta beste baldintza objetiboak fin-katzea merezimendu eta gaitasun-erizpideetan bakarrik oinarrituko da.

Deia eta ikastaro horietan egindako lanen emaitzak agirikoak izango dira.

3.– Norbere gradua sendotzeko ez da kontutan hartuko lanpostu batean behin-behingotasunez egindako zerbitzua, egoera hori aurrez zuena kenduz sortu ez bada behintzat, edo, edukia aldatu dela-eta, lekualdaketa egon delako. Horrelakoetan, parte har dezakeen aurreneko lehiaketaren ebazpena jaso arte, eta graduari dagokionez, ezabatutako lanpostuaren maila sendotuz joango da funtzionaria.

Lanpostu batean zerbitzu-aldian iraundako aldia, funtzionariaren beraren lanpostu-mailari dago-kion norbere gradua sendotzeko kontutan hartuko da.

4.– Ezingo da inola ere sendotu funtzionaria sartuta dagoeneko Taldeari dagokion tartearen gehieneko mailaz goitiko norbere gradurik.

5.– Funtzionaria lanposturen baten ari dadin bitartean lanpostu horren maila aldatzen bada, hor izan den denbora lanpostu horrek izan duen sailkapen-mailarik haundienez neurtuko da.

6.– Euren graduari dagokionetik bi maila baino goragoko lanpostua izan dezaten funtzionarioek duten gradua baino bi mailaz goragokoa sendotuko dute jarraian egindako bi urtez behingo zerbitzuegatik, betetako lanpostuarenari dagokionaz goragokoa inoiz izan ez daitekeela.

7.– Funtzionari batek sendotze-bidean dagoen graduaz goitiko mailako lanpostua lor dezanean, hartan emandako zerbitzuen denbora aipatutako sendotze horretarako kontatuko da, hala eskatzen badu. Kasu horretan, horrela kontatutako aldia ez da beste gradurik sendotzeko erabiliko.

8.– Funtzionari sartu berriei eurak dauden talderako ezarritako gutxieneko mailari dagokion norbere gradua izendatuko zaie.

Goragoko gradu bat sendotu ahal izateko, aurreko idaztatietan xedatutako erregelak aplikatuko zaizkie, 6 zenbakian jasotakoa batik bat.

9.– Barne-mailatan gora eginez beste Kidego eta Eskalatara iritsi daitezten funtzionarioek alde-zurretik sendotua zuten norbere gradua izango dute, gradu hori, Kidego edo Eskala berriak hartzen dituen Taldeari dagozkion mailen tartearen barruan badago.

10.– Zerbitzu berezietan, seme-alabak jagoteko lan-utzialdian, destinoaren zain eta lanpostua ezabatzeagatik edo jarduneko zerbitzura itzultzeko aukerarik ez izateagatik derrigorrezko lan-utzialdian emandako denbora, norbere gradua sendotzeko, jarduneko zerbitzuko azken lanpostuan betetako lez hartuko da; lehenengo bi egoerei dagokienez, ordea, gerora lehiaketa bidez lortutako lanpostua hartuko da kontutan.

## HIRUGARREN SAILA

### LANPOSTUAK BETETZEA

46. Atala.– 1.– Funtzionariarentzat gordetako lanpostuak, lanpostu-zerrendetan jarrita legokeena kontutan izanik, lehiaketez eta izendapen jareiz baliatuz beteko dira.

2.– Lehiaketa bidez bete beharreko lanpostuen kasuan, baldin eta trebakuntzaren ikuspegitik emakumeen eta gizonen artean gaitasun bera badago, emakumeei emango zaie lehentasuna, administrazioko dena delako kidego edo eskalan emakumeak %40 baino gutxiago direnean. Salbuespena izango da lanposturako beste hautagaiak neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak betetzen baditu; kasurako, laneratzeko arazo bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide denean.

3.– Izendapen jareiz betetzeko honako hauek bakarrik gordeko dira:

- a) Autonomi Elkartearen Administrazioako Artezkariorde eta Lurralde-Ordezkaritzako lanpostuak,
- b) Gainerako Administrazio Publikoetako artezkaritza-mailako lanpostuak, beti ere, ierarkikoki aldi berean funtzionariarentzat gordetako beste baten menpeko ez badira behintzat,
- c) Autonomi Elkartearen Administrazioako goren-kargutako, edo hautatutako nahiz izendapezko beste kargu publikoetako idazkari-lanpostuak, eta

d) Lanpostuaren berarizkotasunagatik eta eskatuko den erantzukizun bereziagatik, lanpostu-zerrendetan horrelakotzat zehaztuko lanpostuak.

4.– Lehiaketa da lanpostuak betetzeko bide normala; eta horretan, bete nahi den lanpostuarekiko, dagokion deian emandako merezimenduak baloratuko dira, eta horien artean, jakineko norbere gradua izatea, antzinatasuna, tituluak eta ikasketa-graduak, Administrazio Publikoaren Eskoletan egindako gaitze edo trebatze-ikastaroak eta lehen bete dituen lanpostuen balorazioa nahitaez agertu beharko dute. Bete beharreko lanpostuen nolakoa dela eta, dagokion deian, prozedurako aldi bat gehiago gisa, lehiatzaileak lanpostuaren berarizko zernolakoei zenbateraino egokitzen zaizkien neurtzeko bide emango duten aritze-bidezko saioak, argipide-txostenak edo bakoitzarekin elkar-hizketak egin beharra jarri ahal izango da.

47. Atala.– 1.– Lanpostuak betetzeko Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak egin ditzan deialdiak, lehiaketaz nahiz aukerako izendapenez egin daitezzenak, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Foru Diputazioek edo Udal Batzarrek egindakoak, ostera, Lurralde Historikoetako aldizkari ofizialetan argitaratuko dira. Hala ere, deialdia egiten duenaz besteko Administrazio Publikoetako funtzionarioek bete ditzaketen lanpostuak agertzen badira deialdietan, horien laburpen bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Indarreango legedi aplikagarriak, hala ere, beste argitalpen batzuk egitea ezar dezake.

Deialdietan halabeharrez jaso beharko dira honako xehetasun hauek:

- a) izena, tokia, maila eta lanpostuaren berarizko osagarria,
- b) hori betetzeko eskatzen diren baldintzak, horien artean, lanpostu-zerrendetan jasotakoak bakarrik azal daitezkeela, eta
- c) eskabideak aurkezteko epea, eta hori ez da, inola ere, dagokion aldizkari ofizialean argitaratzen den egunetik hasita, edo azkenengotik aurrera, hamabost lanegunetik beherakoa izango.

2.– Lehiaketarako deian, honako hauek sartuko dira: merezimenduen baremoa, sartutako berarizko saioak adieraziz, lanpostura iristeko eskatzen den gutxieneko puntuaketa eta aukeraketa-batzordearen osakideak, eta hor langilegoaren sindikatueta ordezkaritzak izendatutako ordezkarik batek izan beharko du.

3.– Deien ebazpenak Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian edo, beharrezko balitz, dagokion Kondaira-Lurraldekoan argitaratuko dira.

48. Atala.– 1.– Jarduneko zerbitzuan, zerbitzu berezietan eta seme-alabak jagoteko lan-utzialdian egon daitezzen funtzionarioek parte har dezakete lanpostuak betetzeko deietan. Halaber, derrigorrezko edo borondatezko lan-utzialdian, egiteko gabeturik eta gainerako Administrazio Publikoetan zerbitzu-aldian daudeneke ere parte har dezakete lehiaketan, prozedura hauen bidez jarduneko zerbitzura itzuliz egoera horietarako jarritako iraupen-aldia beteta egon dadinaren baldintzapean.

2.– Behin-behineko lan-izendapena duten funtzionarioek, egoera horretan dirauten bitartean, derrigorrez parte hartu beharko dute beren Kidego edo Eskoletako lanpostuak betetzeko jarritako lehiaketetan.

3.– Lehiaketa bidez lanpostua lor dezaten funtzionarioek ez dute hurrengo bi urteetan egingo diren deialdietakoetan parte hartzerik izango. Funtzionarioak, epe hori igaro baino lehen, 50. ataleko 3 idazatik eta 4. idazatik a) lerroaldian agindutakoaren arabera lortutako lanposturako atxikipena galdu balu, denboraren mugapen hori ez da ezarriko.

49. atala.– 1.– Lanpostuak betetzeko lehiaketetarako deialdia batera egingo da, edo kidego edo eskala bateko edo gehiagoko lanpostuei buruzkoak izango dira. Azkenengo egoera honetan, deialdiak aipatzen dituen kidego edo eskaletako langileek baino bete ezin dituzten lanpostu hutsak bakarrik hartuko ditu deialdiak.

2.– Euskal Administrazio Publikoek, egoera berezietan, baimena eman dezakete lanpostuak betetzeko diren lehiaketei buruzko deialdietarako; finkatuko diren alor, sektore edo sailetan destinoa duten funtzionariantzat izango dira lehiaketok.

50. Atala.– 1.– Estatutuko lanpostu-zerrendaren iraunkortasunaren kaltetan gabe, lanpostua betetzea ez da funtzionariaren sendetsitako eskubide izango.

2.– Lanpostuari izendapen jareiz atxikitako funtzionariak lanpostu horretatik edonoiz aldatu ahal izango dira.

3.– Lanpostua lehiaketaz lortu duten funtzionariak aldatu ahal izango dira euren lanpostutik gerora sortutako arrazoiengatik, lanpostu-zerrenden bidez burututako edo horietan oharreman-dako lanpostuaren edukia aldatu delako, horren eraginez deirako oinarri izan ziren agiangoak alda daitezenean, edo bizkar eman ez arren, lanpostuari izendatutako egitekoak eraginkortasunez burutzea galerazizko etekin eskasak ageriko egin duenez lanpostuan jarduteko ezgai egin delako. Horretarako espedientea egin eta langilegoaren ordezkapen-organuaren txostena jaso ondoren egingo da aldaketa, izendapena egin zuen organuaren zio eta guztiko erabakiz.

4.– Halaber, lanpostu baterako atxikipena galduko da:

a) lanpostua kenduz gero,

b) beste lanpostu baterako izendatua izanez gero,

c) uko eginez, izendapena egin zuen organuak onartuz gero, eta

d) jarduneko zerbitzuan izatea utziz gero, zerbitzu berezietako, sei hilabetez beherako aldian bere egitekoetan sendetsitako etena edo seme-alabaren bat zaintzeko borondatezko lan-utzialdiko egoera har dezatenak salbuetsiz, egoera horretan izandako aurreneko urtean.

5.– Betetzeko modua aldatuko zaien lanpostuez jabetuko diren funtzionariak lanpostuotan bertan jarraituko dute eta, horiek lanpostua utzi beharreko kasuetan, izendatu zireneko sistemako arauak izango dituzte jaurpide.

6.– Singularizatu gabeko lanpostuetan behinbetiko dauden funtzionariak, betetzeko prozedura eta destino–osagarri maila bereko beste lanpostu batzuetara atxiki daitezke, herri berean eta izaera berberaz; beharrezkoa izango funtzio publikoaren alorrean eskuduntza duen organuak aldeztu aurretik aldeko txostena ematea.

51. Atala.– 1.– Beren lanpostuak 50. ataleko 2, 3 idazatietan eta 4. idazatik a) eta c) lerroaldietan agindutakoaren arabera utziko dituzten funtzionariak bere Kidego edo Eskalako beste lanpostuari atxikiko zaizkio aldi baterako.

2.– Lehen izandako lanpostua ezabatu izanaren ondorioz edo, edukia aldatu dela-eta, lekualdaketa egon delako, beste lanpostu bati behinbehingoz atxikitako funtzionariak, egin dadin hurrengo lehiaketan, eta behin bakarrik, herri berean egon daitezten lanpostu hutsak betetzeko lehentasuna izango dute; lanpostuok, ezabatutako edo aldatutako lanpostuaren destino osagarri berdina edo txikiagokoa izan beharko dute.



52. atala.– 1.– Lanpostua gordeta izan gabe jarduneko zerbitzura itzultzen diren funtzionarioak, harik eta behin betiko lantokia lortu arte, behinbehingoz atxikiko zaizkie beren kidegoan edo eskalari hutsik dauden lanpostuei.

2.– Funtzionario sartu berriak hutsik dauden lanpostuei atxikitzeke, interesdunek adierazten duten lehentasunhurrenkeraren arabera egingo da, betiere aukeraketaaldian lortutako behin betiko sailkapenhurrenkerari jarraiki.

Lantoki horiek behin betiko izaera izango dute eta, ondorio guztietarako, dagokion horniketasisistemaren bidez lortutakotzat joko dira.

3.– Aurreko idazatiek aipatzen dituzten lanpostu hutsei atxikitzeke, ezinbestekoa izango da interesdunek lanpostuen zerrendan ezartzen diren hornitzebaldintzak betetzea.

53. Atala.– 1.– Lanpostu baten behin-behingoz jardun dezaten bitartean, horri izendatutako lansari osagarriak jasoko dituzte funtzionarioek eta, beti ere, bere graduari dagokion lantokiaren osagarria.

2.– Behin-behingo atxikipena lehengo lanpostua ezabatu egin delako edo edukia aldatzearen ondorioz lekualdaketa egon delako gertatu bada eta lanpostu berriari izendatutako lansariak utzitakoarenak baino txikiagoak badira, funtzionarioak, aurreko idazatian xedatutakoaren kaltetan gabe, aldibaterako osagarria eskuratuko du aldeagatik. Doakionak parte har dezakeen lehenengo lehiaketa ebatzi arte iraungo du osagarri horrek.

54. Atala.– 1.– Kasu berezietan, eta duten lanpostua gordeta dutela, euren Kidego edo Eskalari dagozkien lanpostuetan jarduteko izenda daitezke funtzionarioak zerbitzu-aldian, edo atxikitako lanpostuaren berarizkoez bestelako egitekoak burutzeko ere bai.

2.– Zerbitzu-aldia borondatezkoa izango da, hori ezinezkoa balitz, presako eta ezin atzeratuzko kasuak eman daitezenean, derrigorrez jartzearen kaltetan gabe, hori doakiona entzun eta langilegoaren ordezkapen Organuaren txostena jaso ondoren.

3.– Betetako lanpostuari izendatutako lansariak jasoko ditu zerbitzu-aldiango funtzionarioak. Hala ere, zerbitzu-aldia derrigorrezkoa izan balitz, eta betetako lanpostuari izendatutako lansariak bere lanpostuari dagozkionak baino txikiagoak balira, hori doakionak aldeagatikako behin-behingo osagarria jasoko du egoera horretan iraun dezan bitartean.

4.– Zerbitzu-aldia lanpostu bati bereziki izendatu gabeko aparteko zereginak edo esleituta dituzten lanpostuetako titularrek aldi-aldiko bete ezin dituzten egitekoak burutzeko eman dadinean, bere lanpostuarentzat izendatutako lansariak jasoko ditu funtzionarioak.

5.– Zerbitzu-aldiaren iraupena ez da bi urtetik gorakoa izango, ez bada ematen, titularra zerbitzu berezietan dagoelako edo aldibaterako falta delako, lanpostu bat betetzeko. Zerbitzu-aldia gehienez ere bi urtez luza daiteke, eta lanpostu bati beren-beregi izendatu ez zaizkion zeregin berezietarako emana denean.

6.– Aurreko idazatietan xedatzen dena beste Administrazio batzuetan lanpostuak edo egitekoak betetzeko eman daitezkeen zerbitzu-aldiei aplikatuko zaie. Zerbitzu-aldi horiek indarra galdu egingo dute bai finkatutako indarraldia amaitzean eta bai eraginpeko bi administrazioetariko batek eman dezan erabaki espresuz ere.

Beste Administrazio Publiko batean zerbitzualdian daudenak Administrazio honek ezarritako lan-baldintzei atxikiko zaizkie. Sustapen profesionala eta zerbitzutik kendu izanagatik zigorra ez dira horretan sartzen.

54 bis atala.– 1.– Giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren bat aplikatu izanaren ondorioz, funtzionariaren baten lanpostua ezabatzea gertatuz gero, beste lanpostu baterako destinoa eman dakioke funtzionari horri langileen berrizendapen- prozeduraz baliatuz.

2.– Langileen ordezkariekin negoziatuko diren arrazionalizazio-programak, giza baliabideei buruzkoak, aplikatu izanaren ondorioz burutu daitezten langileen berrizendapenak gaitasun, formazio, esperientzia eta antzinasunari buruzko erizpide objektiboak kontuan hartuta egingo dira. Erizpide horiek arrazionalizazio-programetan finkatuko dira.

3.– Berrizendapen bidez esleitu den lanpostuari funtzionari bat atxikitzeak behin-betiko indarra izango du.

4.– Giza baliabideen arrazionalizazio-programak aplikatzearen barruan burututako langileberrizendapenaren eraginez, funtzionari batek bere egoitza aldatu beharra izatea gertatuz gero, arlo honi buruzko arauetan finkatzen den kaltegaleren ordaina eskuratzeko eskubidea izango du. Eskubide berdinak izango dituzte derrigorrezko lan-utzialdian egon eta programa horri jarraituz destinoa jaso dezaten funtzionariak.

5.– Autonomi Elkarteko Administrazioaren eremuaren barruan, hiru alditan egingo da langileen berrizendapena:

1.a.– Funtzionariak destinoa dueneko Sailak egingo du langileen berrizendapena bere eremuaren barruan eta beroni atxikitako erakundearen eremuaren barruan. Lanpostua ezabatu dadin egunetik hasi eta sei hilabeteko epearen barruan egin behar da hori. Behartze-indarra izango du berrizendapenak udalerrri bererako baldin bada, eta, beste udalerrri baterakoa izanez gero, borondatezkoa izango da. Ezaugarriak, egitekoak eta lansariak antzekoak izango dira bi kasuetan. Lehen betetzen zen lanpostuari zegokion lansaria eta berria berdinak izango dira aldi honetan zehar.

2.a.– Sail mailako berrizendapenaldian, funtzionari batek bere destinoa dueneko Sailean lanpostua lortzen ez badu, funtzio publikoaren arloan eskuduntza duen Sailak funtzionari horren aldeko berrizendapena egin ahal izango du. Hiru hilabeteko epearen barruan egin beharko da hori, beste Sail batzuetako eta horiei atxikitako erakundeetako lanpostuetarako eta lehengo lanpostuan zituen baldintzekin. Aurreko lanpostuari zegokion lansaria eskuratuko du bigarren aldi honetan zehar.

Aipatu diren bi aldi horietan, eragindako funtzionariei berak direneko kidego edo eskalari dagozkion egitekoak eman ahal izango zaizkie.

3.a.– Langileak berrizendatzeko aldiak igaro eta lanpostua lortu ez duten funtzionariak, funtzio publikoaren arloan eskuduntza duen Sailari atxiki ahal izango zaizkie destinoaren zain dauden egoerako gisa. Berrizendapen-lanpostuen zerranda berezien bidez egingo da hori. Beste Sail batzuetako eta horiei atxikitako erakundeetako antzeko ezaugarriak dituzten beste lanpostu batzuetarako ere izendatu ahal izango ditu Sail horrek; kasu horretan, behartze-indarra izango du berrizendapenak lanpostua Lurralde Historiko berean baldin badago, eta, beste Lurralde Historiko batean egonez gero, borondatezkoa izango da.

Giza baliabideak arrazionalizatzeko programak Administrazio Publiko batzuetan aplikatu izanaren ondorioz langileen berrizendapena egitea gerta dadinean, lehen aipatu diren irizpideak, hau da, epe, lansari, mugikortasun eta administrazio- egoerak, bermatuz egin beharko da berrizendapen hori.

## LAUGARREN SAILA

### BARNE-MAILATAN GORA EGITEA

55. Atala.– Funtzionariak euren Taldeaz gorako edo Talde bereko beste Kidego eta Eskalatara barne-mailatan gora eginez sartu ahal izango dira.

56. Atala.– 1.– Barne-mailatan gora egiteko saioetan parte hartzeko, jatorrizko Kidegoan edo Eskalan jarduneko zerbitzuan edo zerbitzu berezietan ari, zerbitzu horretan karrerako funtzionari-tzan bi urte beteta izan, eta lortu nahi duen Kidego edo Eskalarako jarritako gainerako eskakizunak eta tituluak izan beharko ditu funtzionariak.

2.– Lanpostua barne-mailatan gora eginez eskuratzeko, lortu nahi den Kidego edo Eskalan sartzeko deian ezarritako saio berak gainditu beharko dira. Hala ere, barne-mailatan gora egiteko txandan parte har dezaten izan nahikoak jatorrizko Kidego edo Eskalan sartzeko lehendik eskatutako ezagupenak egiaztatzeko saioak egin behar izatetik jare utzi ahal izango dira.

3.– Barne-mailatan gora egiteko gordetakoak izan eta bete gabe gelditu diren lanpostuak txanda jarean eskeinitakoei gehituko zaizkie.

4.– Barnemailatan gora eginez beste kidego edo eskala batera iristen diren funtzionarioak hutsik dauden lanpostuei atxikitzeko, interesdunek adierazten duten lehentasunhurrenkeraren arabera egingo da, betiere aukeraketaaldian lortutako behin betiko sailkapenhurrenkerari jarraiki eta lanpostuen zerrendan ezartzen diren hornitzebaldintzak betetzen badira. Nolanahi ere, lantokiak aukeratzeko unean, barnesustapenekoek lehentasuna izango dute kasuan kasuko deialdiko txanda irekiaren bidez heltzen diren izangaien aurrean.

## BOSKARREN SAILA

### HIGIKORTASUNA

57. atala.– 1.– Lege honen eremuan sartzen diren funtzionari publikoek lanpostuz aldatzeko duten eskubidea aitortzen da, lanpostu-zerrendetan horrela zehaztu dadin kasuetan eta aplikagarri diren funtzio publikoko legeetan xedatzen denari jarraiki.

2.– Aurreko idazatian aurrikusitako kasuetan, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionariak, lanpostuak betetzeko horietako edozeinek egin ditzaten deietan eskuhartu ahal izango dute.

3.– Halaber, Euskal Administrazio Publikoek, lanpostu-zerrendetan horretako jarri dadinari jarraiki, beste edozein Administrazioetako diren funtzionariak bete ahal izango dituzte lanpostuak.

4.– Tokiz aldatzeko eskubidea erabiltzea ahalbideratzeko, egitekoak eta sartzeko eskatu beharreko titulu-maila antzekoak dituzten Euskal Administrazio Publikoetako Kidego eta Eskalen arteko baliokidetasuna, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak proposatuta, Eusko Jaurlaritzak erabakiko du.

58. Atala.– Aurreko atalean oharmandakoaren arabera Euskal Administrazio Publikoetan lanpostuak betetzera pasako diren funtzionariak, jatorrizko Administrazioetako funtzionari izaten jarraituko dute.

Lan-izendapeneko Administrazioan zerbitzuan jardun dezaten bitartean, hor indarrean dauden legeak ezarriko zaizkie eta lanbide-sustapenari, lansari-errejimenari, administrazio-egoerei eta

zentsapide-errejimenari buruzko arauak batez ere, zerbitzutik behin-betiko aldentzeko zigorra izan ezik, hau jatorrizko Administrazioaren agintean sailak erabaki beharko bait du.

Nolanahi ere lege ezarritako aldaketa-bideen arabera beste Administrazio Publikoetako lanposturen batera alda daitezenean, lan-izendapeneko Administrazioarekiko harremana besterik gabe ezabaturik geldituko da.

## V. ATALBURUA

### ADMINISTRAZIO EGOERAK

#### LEHENENGO SEKZIOA

##### EGOERAK ORO HAR

59. atala.– Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek honako administrazio-egoera hauek dituzten batean egon behar dute:

- a) jarduneko zerbitzuan,
- b) borondatezko lan-utzialdian,
- c) pizgarridun borondatezko lan-utzialdian,
- d) lan-utzialdian, umeak zaintzeko,
- e) destinoaren zain,
- f) zerbitzu berezietan,
- g) derrigorrezko lan-utzialdian,
- h) destinoaren zain daudenekotzat deklaraturiko funtzionarioei aplikagarria, zaien derrigorrezko lan-utzialdian,
- i) egitekoez gabetuta, eta
- j) beste Administrazio Publiko batzuen zerbitzuan.

#### BIGARREN SEKZIOA

##### JARDUNEKO ZERBITZUA

60. atala.– Honako baldintza hauek bete ditzanean egongo da funtzionari bat jarduneko zerbitzuan, alegia, aurrekontuetan dirua izan eta plantilako plaza bat okupatu, funtzionariarentzako gordetako lanpostuan lanean egon edo zerbitzu-aldiak eman dakizkionean.

## HIRUGARREN SEKZIOA

### BORONDATEZKO LAN UTZIALDIA

61. atala.– 1.– Funtzionari bat honako egoera hauetakoren batean dagoenean, bidezkoa izango da borondatezko egoeran dagoela deklaratzeara:

a) Edozein Administrazio Publikotako beste kidego batean edo eskalan jarduneko zerbitzuan egon dadinean, honako kasu hauetan izan ezik, hau da, bidezkoa den egokigarritasuna lor dezanean edo sektore publikoko entitatearen batean zerbitzuak egitera igaro dadinean eta, lege honetan xedatzen denaren arabera, beste egoera bat hartzea ez dagokionean.

Funtzionarioek egoera horretan jarraitu ahal izango dute, egoera horren zio izan zen zerbitzuaharremanak indarrean iraun dezan bitartean. Egoera hori utzi ondoren eta hogeita hamar eguneko epearen barruan jarduneko zerbitzuan berriro sartzeara eskatu beharko du funtzionarioak; eskabidea ez egitea gertatuz gero, interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdi egoerakotzat deklaratu izango da, baina, horretarako, lege honetan ezartzen diren eskakizunak bete beharko dira.

b) Beren interes partikularrengatik eskabidea egin dezatenean. Kasu honetan, lan-utzialdia ematea, zerbitzuaren aldibaterako beharren baldintzapean geldituko da. Interes partikularpeko lan-utzialdira pasatzeko eskabidea aurkeztu ahal izateko, beharrezkoa izango da, edozein Administrazio Publikotan, lan-utzialdia eskatu aurreko bost urteetan zehar Administrazio Publikoren batean benetako zerbitzuak eginda izatea. Gutxienez bi urteko epealdian egon beharko da egoera horretan. Epealdi horiek kontatu ahal izateko, honako urte hauek joko dira benetako zerbitzutzat, alegia, zerbitzu berezietan, destinoaren zain eta seme-alabak zaintzeko lan-utzialdian egindako urteak.

Idazati honetako a) letran aipatzen den borondatezko lan-utzialdiko egoerakotzat deklaratu izatearen ondorioetarako, sektore publikotzat jotzetik kanpo gelditzen diren Erakundeetan edo Entitateetan zerbitzuak egin ditzaten funtzionarioak interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdi egoerakotzat deklaratuak izango dira eta ez zaie aplikatuko aurreko leerroaldean aipatzen den lan-utzialdiko denbora.

Interes partikularpeko borondatezko lanutzialdia ezin eman izango da, funtzionaria zentzabide-espeditapean edo zigorra betetze zain egotea gerta dadinean.

Egoera horretan dauden eta jarduneko zerbitzuan sartzeko eskabidea egin bai, baina, betegabeko plazarik ez dagoelako, lana lortu ez dezaten funtzionarioek egoera horretan jarraituko dute plaza hutsa egotea gerta dadin arte.

c) Familia bateratu ahal izateko borondatezko lan-utzialdia ondorengo kasuan eman ahal izango zaie funtzionarioei, gutxienez bi urterako eta gehienez hamabost urterako: haien ezkontideak lanpostu bat behin-betiko lortu eta, hori bete behar duelako, beste udalerrri batean bizi beharra duenean, nahiz karrerako funtzionari gisa, nahiz lan-kontratupeko funtzionari gisa. Lanpostu hori egon daiteke Administrazio Publiko batean, Erakunde Autonomo batean, Gizarte Segurantzako Entitate Kudeatzaile batean, konstituzio-organu batean, Eusko Legebiltzarrean, Herri Kontuen Euskal Epaitegian, Arartekoaren bulegoetan eta Epailaritzza-Boterearen organuetan.

Familia bateratu ahal izateko borondatezko lan-utzialdi egoeran jarraitzeko gehienezko epealdia amaitu ondoren, funtzionarioak jarduneko zerbitzura birsartzeko eskabidea egin behar du 30 eguneko epearen barruan, eta, horrela jokatzeko ez badu, interes partikularpeko borondatezko

lan-utzialdi egoeran dagoela deklaratu da, baina, horretarako, lege honetan ezartzen diren eskakizunak bete beharko dira.

Borondatezko lan-utzialdiak ez du ekarriko lanpostua gordetzea, eta egoera horretan egindako denboraldia ez da kontatuko sustapen, hirurteko eta eskubide pasiboen ondorioetarako. Borondatezko lan-utzialdi egoeran dagoen funtzionarioak, egoera horretan dirauen bitartean, ez du inolako lansari-zorrik sortuko.

2.– Berrizendatzeko prozesu batek bere eraginpean hartu eta lege honetako 54 bis atalean aipatzen diren lehenengo bi aldietakoren batean egon daitezten funtzionarioak pizgarridun borondatezko lan-utzialdi egoerakotzat deklaratu ahal izango dira eurak hala eskatzen badute.

Giza baliabideak arrazionalizatzeko programak aplikatu izanaren ondorioz destinoaren zain edo derrigorrezko lan-utzialdian egon daitezenez eskubidea izango dute egoera horretara pasatzeko, horren eskabidea egiten badute.

Pizgarridun borondatezko lan-utzialdiak bost urteko iraupena izango du eta sektore publikoan lanpostuak betetzeko ahalbideak itxi egingo ditu. Ondorioz, langile horrek ezin bete izango du funtzionari edo kontratu-harremaneko lanposturik, kontratu hori lan-itunepekoa nahiz administrazio- kontratua izan. Aipatu den epealdi hori bete ondoren, interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdi egoerara pasako da funtzionaria beste gabe, birsartzea eskatzen ez baldin bada behintzat, baina, horretarako, lege honetan ezartzen diren eskakizunak bete beharko dira.

Pizgarridun borondatezko lan-utzialdi egoerara pasa daitezten funtzionarioek aldi aldi eta lehen bete zuten lanpostuari zegozkion lansarien hileko bat eskuratzeko eskubidea izango dute, benetako zerbitzuetan egindako urte oso bakoitzagatik, gehienera hamabi hilabeteko izango direla. Ez dira horretan sartzen, ez ohiz kanpoko lansariak eta ez produktibitate-osagarria ere.

Borondatezko lan-utzialdiak ez du ekarriko lanpostua gordetzeko eskubiderik, eta bertan egoteak ez du izango ondorioz ez sustapen, ez hirurteko eta ez eskubide pasiboek dagozkienetan ere.

## LAUGARREN SEKZIOA

### LAN UTZIALDIA SEME-ALABAK ZAINTEZKO

62. atala.– 1.– Gehienez hiru urteko iraupena izango duen lan-utzialdi baterako eskubidea izango dute funtzionarioek, seme edo alaba bakoitza zaintzeko. Jaiotza-egunetik edo epaileak erabakia eman dezanetik hasita kontatuko da epealdia eta semea edo alaba norbera edo adopziozkoa izan daiteke.

2.– Seme edo alaba bakoitzak lan-utzialdi berri baterako eskubidea emango du, lan-utzialdi batek bestea indargabetu egingo duela.

3.– Aita eta ama, biak lanean dabiltzanean, bietako bat bakarrik baliatu ahal izango da eskubide horretaz.

4.– Egoera horretan igarotzen den aldia konputagarria izango da hirurtekoen, norbere gradua sendotzearen eta eskubide pasiboen ondorioetarako. Denboraldi horretan gisa honetako funtzionarioek eskubidea izango dute lehen betetzen zuten lanpostua gorde diezaieten.

5.– Egoera horretan igarotzen den aldiko lansaridun jardunak Administrazio Publikoan zerbitzuan dauden langileei aplikatzen zaien bateraezintasun- errejimenari atxikiko zaizkio eta ezin eragotzi izango dute edo ezin kalte egin izango diote seme-alabak zaintzeari.

6.– Lan-utzialdian egoteko gehienezko epealdia amaitu ondoren, 30 eguneko epearen barruan jarduneko zerbitzura birsartzeko eskabidea egingo du funtzionariak; eskabidea ez egitea gertatuz gero, interes partikularpeko borondatezko lanutzialdi egoerakotzat deklaratu da, baina, horretarako, lege honetan ezartzen diren eskakizunak bete beharko dira.

## BOSGARREN SEKZIOA

### DESTINOAREN ZAIN EGOTEA

63. atala.– 1.– Destinoaren zain dauden funtzionariak honako lansari hauek eskuratuko dituzte: oinarritzkoak, legokiekeen norbere graduaren destinoosagarria eta egoera horretara pasatzean betetzen zuten lanpostuari zegokion berariazko osagarriaren 100eko 50a.

2.– Honako hauek bete beharko dituzte funtzionari horiek:

a) Destinatuta zeuden Lurralde Historikoan eskaini dakizkiekeen eta betetzen zituzten lanpostuen antzeko ezaugarriak dituzten destinoak onartu.

b) Destinatuta zeuden Lurralde Historikoan kokatuta dauden eta beren kidego, eskala edo kategoriari egokitutako lanpostuak hartzeko lehiaketetan parte hartu.

c) Deialdia egin dakieneko trebakuntza-ikastaroetan parte hartu.

3.– Destinoaren zain egoteko denbora gehienez urtebete izango da. Epealdi hori igaro ondoren, derrigorrezko lan-utzialdi egoerara pasako dira.

4.– Gainontzeko ondorioei dagokienetan, egoera hau eta jarduneko zerbitzuan egotearena parekoak dira.

## SEIGARREN SEKZIOA

### ZERBITZU BEREZIAK

64. atala.– 1.– Honako kasu hauetan deklaratu dira Euskal Administrazio Publikoetako funtzionariak zerbitzu berezien egoerakotzat:

a) nazioarteko edo nazioez gaineko erakundeetako funtzionari izatea lor dezatenean,

b) nazioarteko erakundeetan, atzerriko gobernu edo entitate publikoetan edo nazio edo nazioarte mailako lankidetzeta-programetan sei hilabetetik gorako iraupena izango duten eginkizunak betetzeko, Administrazioak baimena eman diezaienean,

c) Eusko Jaurlaritzako, Estatuko Gobernu edo beste Autonomi Elkarte batzuetako gobernuorganuetako edo Foru Diputazioetako kide izateko edo berorietako goi-mailako karguetarako izendatuak izan daitezenean, kargu horiek nahitaez funtzionari publikoek bete beharrekoak ez diren kasuetan,

d) Gorte Nagusiek konstituzio-organuetako edo beste organu bateko kide izateko aukera ditzatenean, aukeratzea Biltzar horiei dagokien kasuetan,

e) Europako Parlamentuak organu bateko kide izateko izenda ditzanean, aukeratzea Parlamentu horri dagokion kasuetan,



f) Gorte Nagusietako diputatu edo senadore izateko edo Europako Parlamentuko diputatu izatera irits daitezenean,

g) Eusko Legebiltzarreko, Lurralde Historiko bateko Batzar Nagusietako edo beste Autonomi Elkarte bateko Legegintza Biltzar bateko kide izatera irits daitezenean, non eta, bateraezintasunean sartu gabe, jarduneko zerbitzuan jarraitzeko erabakia hartzen ez duten,

h) hauteskunderen ondorioz kargu lansaridun eta dedikazio eskusiboa eskatzen dutenak Udal Batzarretan bete ditzatenean,

i) behin-behineko langileentzako gordeta dauden lanpostuak bete ditzatenean,

j) funtzio publikoarekin bateragarria ez den edozein kargu politikotarako izenda ditzatenean,

k) soldadutza edo ordezko zerbitzua betetzen ari daitezenean, hori eta funtzio publikoa betetzea bateragarriak izan daitezenean izan ezik,

l) Konstituzio Auzitegiko, Arartekoaren edo Herri Defendatzailearen zerbitzuei atxikita egon daitezenean edo, apirilaren 5eko 7/1988 Legeko 93.3 atalean xedatzen denaren arabera, Kontuen Epaitegira destinatuta,

m) Herri Kontuen Euskal Epaitegiko kide egin daitezenean, eta

n) beste edozein kasutan, Eusko Legebiltzarrak lege bidez hala finkatu dezanean.

2.– Zerbitzu berezietan egon daitezen funtzionarioei gorde egingo zaizkie bai plaza eta bai destinoa ere. Eta egoera horretan egon daitezen denboraldia konputatu egingo zaie, gradu, hiru-teko eta eskubide pasiboen ondorioetarako.

Dena dela, bete dezaten benetako lanpostuari edo karguari dagozkion ordainsariak eskuratu egingo dituzte eta bai funtzionari gisa onartuta izan ditzaten hirurtekoei dagozkienak ere.

3.– Diputatu, senadore eta Eusko Legebiltzarreko, Lurralde Historikoetako Batzar Nagusietako eta beste Autonomi Elkarte bateko Legegintza Biltzarreko kide izan, baina Biltzarra ezabatu egin delako edo agintealdia amaitu delako izaera hori gal dezatenek jarraitu ahal izango dute zerbitzu berezien egoeran Biltzar berria eratu arte.

4.– Zerbitzu berezietako egoerakotzat deklaraturik izatearen jatorri izan zen izaera galdu dezatenek jarduneko zerbitzuan birsartzeko eskabidea aurkeztu behar dute hogeita hamar eguneko epearen barruan, eta, horrela ez badute jokatzeko, interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdi egoerara pasako dira, lege honetan eskatzen diren baldintzak betetzen baldin badituzte.

## ZAZPIGARREN SEKZIOA

### DERRIGORREZKO LAN UTZIALDIA

65. atala.– 1.– Honako kasu hauetan pasako dira Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioak derrigorrezko lan-utzialdi egoerara:

a) funtzionarioak betetzen duen lanpostua ezabatu eta destino berri bat ematea ezinezkoa izan dadinean, eta

b) egitekoez gabeturik egondako aldia igaro edo semea edo alaba zaintzeko lan-utzialdia amaitu ondoren, funtzionarioak birsartzeko eskabidea egin, baina birsartzea ezinezkoa denean plaza hutsik ez dagoelako.

2.– Derrigorrezko lan-utzialdian dagoenak eskubidea izango du oinarrizko lansariak eskuratzeko eta egoera horretan igarotako aldia konputagarria izango zaio hirurtekoetarako, eskubide pasiboetarako eta norbere gradua sendotzeko.

3.– Derrigorrezko lan-utzialdian dagoen funtzionariak bere kidegoko edo eskalakoak diren lanpostuak betetzeko egin daitezten deialdietako lehiaketa guztietan hartu beharko du parte. Dena dela, dagokion Administrazioak jarduneko zerbitzura sar dadila agindu ahal izango dio, aurrekontuetan horretarako dirua duen plaza hutsa egotea gerta dadinean.

Administrazioak derrigortasunez agindu, baina, hala ere, lehiaketetan parte hartu ez edo hogeita hamar eguneko epearen barruan jarduneko zerbitzura sartu ez daitezten funtzionariak interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdi egoerara pasako dira, lege honetan horretarako ezartzen diren eskakizunak betetzen badituzte.

4.– Destinoaren zain daudenekotzat deklaratuak izan daitezten funtzionariak derrigorrezko lan-utzialdi egoerara pasako dira lerroalde honetan finkatzen diren berezitasunekin eta honako kausa hauek gerta daitezenean:

- a) Egoera horretarako finkatuta zegoen gehienezko denboraldia pasata izatea,
- b) 63.2 atalean aipatzen diren obligazioak ez betetzea.

Derrigorrezko lan-utzialdi honetan daudenek oinarrizko lansariak eskuratzeko eskubidea izango dute.

Funtzionario horiek honako obligazio hauek bete beharko dituzte: beren kidego, eskala edo kategoriari egokitzen zaizkien lanpostuetarako egin daitezten deialdietako lehiaketetan parte hartzea, horien berri jasotakoan; antzeko ezaugarriak dituzten eta izenda dakizkiekeen destinoak onartzekoa eta eskaini dakizkiekeen trebakuntza-ikastaroetan parte hartzea.

Sektore publikoan ezin bete izango dute funtzionari edo kontratu-harremaneko lanposturik, kontratu hor ilan-itunepekoa nahiz administrazio-kontratua izan. Sektore horretan lanpostua lortzea gertatuz gero, 61.1.a) atalean arautzen den borondatezko lan-utzialdi egoerara pasatuko dira funtzionariak.

Interes partikularpeko borondatezko lanutzialdi egoerara pasako dira, lerroalde honetan aipatzen diren obligazioak ez betetzea gertatuz gero eta egoera horretaz baliatzeko bete behar diren baldintzak betetzen badituzte.

## ZORTZIGARREN SEKZIOA

### EGITEKOEZ GABETZEA

66. atala.– 1.– Egitekoez gabetzea behin-behinekoa edo sendetsia izan daiteke. Gabetzeak iraun dezan bitartean, kendu egiten zaizkio funtzionariari bere egitekoak eta horien ondoriozko eskubideak aldibaterako baldin bada ere. Atal honetan xedatzen direnak ere kontutan hartuko dira.

2.– Egitekoez behin-behingoz gabetzeko erabakia prebentzio mailakoa izan daiteke, epaiketa edo zentzabide mailako prozeduraren izapideak burutzen diren bitartean, interes publikoa kasu bereziren batean babestu beharrak hala eska dezanean.

Zentzabide-espeditente baten izapideak egiteko aldian egitekoez behin-behingo gabeturik egoteko denboraldia ezin daiteke izan espeditente horri ebazpena emateko legeetan finkatzen dena baino luzeagoa, atzerakizuna espeditentepeko funtzionariari ezar dakioken kasuan izan ezik.

Epaiaketa-prozeduraren pean dagoen funtzionaria egitekoez behin-behingo gabeturik egoteko aldia luzatu ahal izango da kausa penalaren izapideak bete arte.

Dena dela, izapideek iraun dezaten bitartean epailaritzza-organuak aldibaterako espetxeratzea edo beste neurri batzuk hartzea erabakiko balu eta funtzionaria lanean aritzea ezinezko bilakatu, behin-behingo egitekoez gabetutzat deklaratu da funtzionaria, neurri horiek indarra izan dezaten aldian zehar.

Egitekoez behin-behingo gabetuta dagoenak oinarrizko lansariak eskuratzeko eskubidea izango du, ez agertzea edo funtzionariari ezar dakioken espeditente-luzapena ematea gerta dadi-nean izan ezik, orduan edozein eratako lansarietarako eskubidea galduko bailitzateke.

Espeditenteari ebazpena eman eta, hala ere, egitekoez gabetzea sendetsizat ez deklaratzeko gertatuko balitz, honako hauek ekarriko lituzke horrek, alegia, funtzionaria berehala lanpostuan birsartu ahal izatea, ordaindu ez zaizkion lansariak eskuratu ahal izatea eta egitekoez behin-behingo gabeturik egindako denboraldia jarduneko zerbitzutzat konputatu ahal izatea.

3.– Egitekoez gabetzea sendetsia izango da gabetze hori krimen-kondenaren edo zentzabidezigorraren ondoriozkoa izan dadinean. Bere iraupena sei hilabetetik gorakoa baldin bada, lanpostua galtzea ekarriko du.

Egitekoez gabetze sendetsia zentzabide-zigorraren ondoriozkoa baldin bada, bere iraupena ezin da izan lau urtetik gorakoa, eta, zigor hori betetzearen ondorioetarako, egitekoez behin-behingo gabeturik egondako aldia konputatu egingo da.

Epaiaren epaiaren ondoriozkoa den egitekoez gabetze sendetsia dagoeneantxe ezarriko da.

Zigorra bete ondoren, jarduneko zerbitzuan birsartzeko eskabidea egin beharko du funtzionariak hogeita hamar eguneko epearen barruan, eta, horrela jokatzeko ez badu, interes partikularpeko borondatezko lan-utzialdira pasatuko da, lege honetan, horretarako, eskatzen diren baldintzak betetzen baditu. Egitekoez gabeturik egondako aldia sei hilabetetik beherakoa baldin bada, beste gabe birsartuko da lehengo lanpostuan.

## BEDERATZIGARREN SEKZIOA

### ZERBITZUA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUETAN

67. atala.– Beste Administrazio Publiko batzuetako lanpostuaz, nahiz lehiaketa bidez, nahiz aukerako izendapenez, jabetu daitezten funtzionariak, beste Administrazio Publiko batzuetako zerbitzu-egoerara pasatuko dira.

## HAMARGARREN SEKZIOA

### JARDUNEKO ZERBITZUAN BIRSARTZEA

68. atala.– 1.– Lanpostua gordeta izan ez dezaten funtzionarioak jarduneko zerbitzuan birsartzea ondoren aipatzen den lehentasun-hurrenkerari jarraituz egingo da, horretarako, lanpostu hutsa eta aurrekontuetan diruz hornitutakoa egotea ezinbestekoa dela:

- a) destinoaren zain egotea,
- b) derrigorrezko lan-utzialdian daudenak,
- c) egitekoez gabetuak,
- d) borondatezko lan-utzialdian daudenak eta
- e) beste Administrazio Publiko batzuetan zerbitzuan daudenak.

2.– Lehiaketaz edo aukerako izendapenez lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartuz egingo da birsartzea.

3.– Bere kidegoko edo eskalako lanpostu huts bati behin-behingo atxikitzearen bidez ere egin daiteke birsartzea. Eta egoera horretan geldituko da funtzionaria, lehiaketa bidez edo aukerako izendapenez behin-betiko destinoa lortu arte.

## VI ATALBURUA

### FUNTZIONARIEN ESKUBIDEAK ETA EGINKIZUNAK

#### LEHENENGO SAILA

#### ESKUBIDEAK, OROHAR

69. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoek funtzionariei hauek egitekoak betetzean beharrezko duten babesa eskainiko diete eta lege honetan jasotzen diren eta funtzionariei dagozkien eskubideak bermatuko dituzte.

2.– Funtzionariak honako hauetarako izango dute eskubide:

- a) karguan eta beren lanpostuan eta lan-izendapenekoan jarraitzeko, lege honetan oharmentan diren mugen eta baldintzen barruan,
- b) duten lanpostuari eta dagokien gizarte-emendioko errejimenarekiko lansaria jasotzeko,
- c) administrazio-karrerarako eta barne-mailatan gora egiteko,
- d) etenik gabeko lanbide-gaikuntzarako,
- e) horretako jarritako prozedurak erabiliz, sindikaritzaren erakundeen eta ordezkotza-sailen bidez, informazioa jasotzeko, laneko baldintzak zehazteko, eta horietan parte hartzeko,
- f) lan-izendapena duteneko administrazio-alorraren helburu, eraketa eta iharduerarekiko informazioa gertueneko agintari ierarkikoarengandik jasotzeko,

g) onartu daitezen osasun-sorospena eta gizarte-laguntzak hartzeko eta baita laneko segurtasun eta higieena izateko ere,

h) bere espedientea nahi bezala ezagutu eta ikusteko, eta

i) sindikatu-eskubide eta askatasunak erabiltzeko.

## BIGARREN SAILA

### OPORRAK ETA BAIMENAK

70. Atala.– 1.– Funtzionarioek, gutxienez ere, hilabeteko oporrak hartzeko eskubidea izango dute zerbitzuan egindako urte bakoitzagatik edo lan egin duteneko aldia txikiagoa balitz, horren heinean dagozkien egunetakoa. Zerbitzuko beharrek esango dute oporraldi hori noiz gozatu.

2.– Behar bezala zurututako honako zio hauegatik emango dira baimenak:

a) seme-alabaren bat jaio edo seme-alabatzakoren bat hartzeagatik, edo familiakoren baten heriotza edo gaisotasun larriagatik, senide edo ahaidetasun-mailako bigarren gradura arte,

b) etxebizitzaz aldatzeagatik,

c) ikastetxe ofizialetan azken-azterketak egitera joateko, horiek diren egunetan,

d) norbere edo herri-mailako utzi ezineko betebeharrengatik, horiek betetzeko behar den aldirako,

e) sindikatu-mailako egitekoak betetzeko, sindikaritze-gaikuntzarako edo langilegoaren ordezkotza egiteko,

f) haurdunaldi eta erditzeagatik,

g) egitekoa behar bezala betetzea eragozten duen gaisotasunagatik, eta

h) ezkontzeagatik.

3.– Atal honetan aipatzen diren baimenak ordaindu egingo dira eta gozatzeko-aldia, ondorio guztitarako, jarduneko zerbitzutzat joko da. Araudiz zehaztuko dira iraupen-epeak eta horietaz baliatzeko bete beharreko baldintzak.

4.– Euskal Administrazio Publikoek, bakoitzak bere eremuan, atal honetako bigarren idazatian jasotzen ez diren kasuetarako, funtzionarioen ordezkariekin honako erabaki hauek hartu ahal izango dituzte: lansari eta guztiko baimenak eman eta, hala balegokio, baimen hauentzako araudiz ezarritakoak baino aldi luzeagoak, edo horietaz baliatzeko baldintza hobeak ezartzea.

71. Atala.– Honako baldintza hauek betez gero eta horien arabera eman ahal izango dira baimenak:

a) funtzionaria kide deneko eta Kidego edo Eskalari dagozkion egitekoekin artezko lotura duten gaiei buruzko ikasketak egiteko. Baimen hau, ondorio guztietarako, iharduneko zerbitzutzat joko da eta, Administrazioaren probetxurako emana bada, ordaindua izango da,

b) norbere gauzetarako, inolako ordainketarik gabe. Baimen hau ematea, zerbitzuaren beharren menpe geldituko da, eta horren iraupena, bateratuta, bi urteko, ez da hiru hilabatek gorakoa izango,

c) Administrazioaren beraren edo beste batzuren Kidego edo Eskaletan sartzeko jarritako ikastaro berezietan edo praktika-aldietan parte hartzeko. Ikastaroak eta praktika-aldiak iraun dezaten aldirako emango da baimen hau eta ez da ordainduko.

72. Atala.– 1.– Hamar hilabatek beherako haurrik duen funtzionariak hura zaintzeko ordubetez lana uzteko eskubidea izango du. Aldi hau bi zatitan banatu edo lanorduak orduerdi gutxitu ahal izango dira. Aitak eta amak etxetik kanpo lan egin dezatenean, bietako batek bakarrik izango du eskubide horretaz baliatzerik.

2.– Sei urte baino gutxiagoko haurrik edo irabazbidedun lanik egiten ez duen gorputz edo adimen-mailako ezindurik, legez zaindu beharrez, bere ardurapean duen funtzionariak, lan-egunaren herena edo erdia gutxitzeko eskubidea izango du, ordainketa guztiak, hirurtekoak barne, hein berean beheratuko zaizkiola. Legez zaindu beharra dela eta, lan-orduak gutxitzeko baimena eta, gutxitutako ordutegiaren barruan, lansaridun edo lansaririk gabeko beste lanen bat egitea, bateraezinak izango dira.

3.– Behar bezala zuritutako kasuetan, funtzionariarekin bizi den ezkontidearen, aitaren edo amaren gorputzeko edo adimeneko ezina dela eta, lanorduak gutxitzeko baimena eman ahal izango da aurreko idazatian zehaztutako baldintzak betez gero.

## HIRUGARREN SAILA

### EGINKIZUNAK

73. Atala.– 1.– Funtzionariak eginkizun hauek dituzte:

- a) betebeharretan aritzean indarrean dauden legeak betetzea,
- b) izendatuak dituzten betebeharrak ongi burutu eta guztien interesak inpartzial eta objetiboki zerbitzea,
- c) nagusiekiko errespetoa eta horiek emandako oharrak betetzea,
- d) beren lankideekiko eta menpekoekiko lankidetza eta horiekiko harremanetan behar den bezalako errespetoa, hauei lanak egin eta eginbeharrak betetzea erraztuz,
- e) Administrazioa jotzen dutenekiko tratu egokia, Administrazioaren aurrean egin behar dituzten izapideak kudeatzeko laguntzarik oparoena eskainiz,
- f) beren egitekoak direla eta, ezagutu ditzaketen gaiak doakien neurrian isilpean gordetzea eta, bereziki, legez isilpeko edo erreserbatutzat aldarrikaturiko gaiei dagozkienetan,
- g) Administrazioak bere zerbitzuko langilegoarentzako jarri ditzan baliabideez baliatuz, profesional mailan goreneko gaitasuna lortzen ahalegintzea,
- h) ezarrita dauden lanorduak eta ordutegia zorrotz betetzea, eta
- i) nagusiak, lankideak edo menpekoak hor ez izatea gerta baledi, zerbitzuak ongi jarrai dezan ahaleginak egitea.

## LAUGARREN SAILA

### BATERAEZINEKOAK

74. Atala.– 1.– Funtzionarioek indarrean dauden legeetan jarritako bateraezineko errejimena zorrotz bete eta euskal Administrazio Publikoek hori bete dadin eskatu beharko dute.

2.– Sektore publikoan edo pribatuan beste lan edo ihardunen baten aritu ahal izateko, berarizko egokitasun-baimena eman beharko da beti aurretik eta hori, indarrean dauden legeek hori ohartemandako kasuetan bakarrik eta arauz ezarriko den prozeduraren arabera emango da.

## BOSKARREN SAILA

### ERANTZUKIZUNAK

75. Atala.– Eman zaizkien eginbeharren erantzukizuna izango dute funtzionarioek, agintari ierarkikoei legokiekeenaren kaltetan gabe, horiei zerbitzuan nabaritu ditzaketen akatsen berri eman beharko bait diete beti.

76. Atala.– Funtzionarioek zerbitzu publikoen ihardunean duten erantzukizunaren eta egindako kalteak ordaindu beharraren kaltetan gabe, euskal Administrazio Publikoek, funtzioniaren erru larria edo zuritu ezineko ezjakina dela eta, Administrazioaren zerbitzua hartzen dutenei edo Administrazioaren ondasun eta eskubideei kalterik egin dien funtzioniaren aurka jo ahal izango dute, dagokion espedienteari hasiera emanaz eta doakionari entzun ondoren.

## VII ATALBURUA

### LANSARIAK

77. Atala.– 1.– Lege honetan jarritako lansari-gaiegatik bakarrik jaso ditzakete lansariak euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek.

2.– Oinarrizkoak eta osagarrikoak dira funtzionarien lansariak.

78. Atala.– Honako hauek dira oinarrizko lansariak:

a) lege honetako 43. atalean aipatzen diren taldeetako bakoitzari dagokion soldata. A taldeko funtzionarien soldata-zenbatekoa ez da E taldekoentzat ezarrita dagoena baino hiru halakotik gorakoa izango,

b) hirurtekoak, hiru urtez behingo zerbitzuengatik talde bakoitzari izendatzen zaion zenbateko berdina, eta

c) urtean bi, horietako bakoitzak hilabeteko soldata eta hirurtekoak gutxienez izango dituzten ordainsari bereziak ekainean eta abenduan jasoko dira.

79. Atala.– Honako hauek dira lansari osagarriak:

a) betetzen den lanpostu-mailari dagokion lan-izendapenarekiko osagarria, horren zenbatekoa urtero Autonomi Elkarteko aurrekontu nagusietan finkatuko dela,



b) berarizko osagarriak, izendatua duen lanpostu bakoitzarentzat bakarra izango bait da, teknika-zailtasun bereziak, iharduna, erantzukizunak, arriskuak edo nekeak dituzten egoerak sarituko ditu,

c) emankortasun-osagarria, etekin berezia, ohiz kanpoko iharduna eta funtzionariak bere lanpostuan jartzen duen ardura eta ekina ordaintzeko jarria.

Gastu-egitarau bakoitzean eta bere osoan hartuta finkatuko da horren zenbatekoa, bakoitzarekiko zenbatekoak zehaztea eta hori jasotzea merezi duten funtzionariak izendatzea, ezar daitezen erizpideen arabera eta lanarigoaren ordezkotza duen Sailak txostena egin ondoren, gai den sailari dagokiola, eta

d) agizko lanorduez kanpo egindako zerbitzuegatiko gain sariak, hauei dagozkien zenbatekoak ez dira izango jakinekoak ez eta aldizkakoak ere. Berarizko osagarria zehazteko, ihardun berezia haztatu deneko lanpostuetan gain sariak jasotzea ez da bidezko izango.

2.– Zerbitzua dela eta, egin daitezen gastuen ordainak jasotzeko eskubidea izango dute funtzionariak, araudiz zehaztu daitezen zenbateko eta baldintzetan.

3.– Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak eman dezan txostena aztertu ondoren, araudiz ezarritako dituzten Jaurlaritzak berarizko eta emankortasun-osagarriak zehazteko erizpide nagusiak.

4.– Lansari osagarriez baliatzeak ez du funtzionarien aldeko sendetsitako eskubiderik sortuko, sendotutako graduari begira legokiokeen lan-izendapenaren osagarri-maila izan ezik.

80. Atala.– Administrazio bakoitzaren zerbitzuko diren langile guztiek eta sindikatuetakoa ordezkariek ezagutu ahal izango dituzte lege honetan oharmandako kontzeptuegatik funtzionari bakoitzak jaso ditzan zenbatekoak.

81. Atala.– 1.– Hil osoa amaitu ondoren sortuko dira lansariak jasotzeko eskubideak eta ordainduko, dagokion hileko lehenengo lan-egunekoarekiko funtzionariak dituen egoera eta eskubideen arabera, honako kasuetan izan ezik, hauetan egunka egingo bait da ordainketa:

a) iharduneko zerbitzuan hasi edo horra itzuli, ordainketa-eskubiderik gabeko baimena amaitu dela eta sartu edo beste lanpostu bati benetan atxikitzea gerta dadin hilean, atxikipen honen eta lehengoaren artean lansari-ezberdintasunik baldin bada,

b) ordain-eskubiderik gabeko baimenaz baliatzeari ekin eta iharduneko zerbitzu-egoeratik bestelako administrazio-egoerara benetan igaro dadin hilean, eta

c) iharduneko zerbitzua utzi dadin hilean, eskubidea sortu zeneko hurrengo hilaren lehenengo egunetik hasi eta hila amaitu ondoren jasotzen diren pentsio publikoen menpe dagoen funtzionaria hil edo jubilatu izan ezik.

2.– Ordainsari berezia jaso dadin egunera arte egindako zerbitzu-aldiak, ekainaren edo abenduaren aurreko sei hilabete osoak hartzen ez baditu, ordainsari horren zenbatekoa dagokion heinean gutxituko da. Honetarako, ordainketa-eskubiderik gabeko baimenen iraupena ez da egindako zerbitzu-alditzat hartuko.

3.– Hirurtekoa burutzean, funtzionaria partaide deneko Kidegoko edo Eskalako Taldeari dagokion balioa dutela sortuko dira hirurtekoak jasotzeko eskubideak eta ordainduko.

4.– Arauzko lan ihardunaldiaren eta funtzionariak benetan egindakoaren arteko diferentziak, zurriz ez baldin bada behintzat, irabazien heineko kenketa ekarriko du; hori ez da eragozpen izango zentzapide-erantzukizunean sartzeko, kasua horrelakoa bada.

5.– Lantokia atzerrian duten funtzionarioek Euskal Autonomi Elkartearen eremuan lan egiten dutenentzat ezarritako kontzeptu berberen arabera jasoko dute lansaria.

Funtzionarioek hemen beste erosteko ahalmena izan dezaten eta bizi-baldintzak hemengoaren parekotzat jotzeko, Jaurlaritzaren Kontseiluak urtero zehaztuko duen modulu berezi bat ezarriko zaio jasotzen duten urteko zenbatekoari. Hona hemen urteko zenbatekoa osatzen duten atalak: funtzionarioari dagokion taldearen ordainsaria, aparteko ordainsariak eta aldizka jasoko dituen ordainsari osagarri finkoak.

## VIII ATALBURUA

### FUNTZIONARIEN ZENTZAPIDE-ERREJIMENA

#### LEHENENGO SAILA

##### HUTSEGITEAK

82. Atala.– Funtzionarioek dituzten eginbeharrak eta eginkizunak ez betetzea hutsegite izango da eta lege honetan oharrekin diren zigorrak ezartzea ekarriko du.

Hutsegiteak oso larri, larri eta arinetan sailkatzen dira.

83. Atala.– Honako hauek dira hutsegite oso larriak:

a) funtzio publikoan aritzean Konstituzioarekiko edo Autonomi Estatutuarekiko zintzotasun-eginkizuna ez betetzea,

b) arraza, sexu, erlijio, hizkuntza, eritzi, jaioleku edo bizileku edo beste edozein izakera edo norbere edo gizarte-egoera dela eta, bereizkeriarik ekar dezakeen edozein ekintza,

c) zerbitzua uztea,

d) Administrazioari edo biztanlegoari kalte haundiak ekar diezazkieten eta argi eta garbi legez kontrako diren erabakiak edo akordioak hartzea,

e) Legez sekretu ofizialekotzat aldarrikatu edo horrelakotzat sailkatuak izan direnak argitaratzea edo horietaz behar ez bezala baliatzea, bai eta beren eginkizunak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legeko 24. artikuluan aipatzen den organoan eta Jardueren eta Ondare Ondasun eta Eskubideen Erregistroan betetzerakoan ezagutzen dituzten datu eta informazioei buruzko sekretua gordetzeko betebeharra ez betetzea ere, betebeharrak hori kargu publikodunen bateraezintasunen arloko legerian ezarrita baitago,

f) emandako lanak alhora utziz, etekinik eza nabaria izatea,

g) eman zaizkion aginteak edozein mota eta eremutako hauteskunde-aldietan eragina izateko erabiliz, politika mailako alderdi-gabetasun edo menpekotasunik eza haustea.

h) elkartuezinei buruzko arauak ez betetzea,

i) herri-askatasunez eta sindikatu-eskubideez baliatzeari oztopoak jartzea,

j) grebarako eskubidea nahi bezala erabiltzeari eragoztera doazen ekintzak burutzea,

- k) legez argi eta garbi debekatua dutenek grebetan parte hartzea,
  - l) greba-garaian, beharrezko zerbitzuak bete beharra izan eta ez betetzea,
  - m) pentsakera, ideiak eta eritziak nahi bezala azaltzeari mugak jartzeko ekintzak burutzea, eta
  - n) urtebeteren barruan hiru hutsegite larri egin dituelako, zigortua izatea.
- ñ) ezarrita dauden epe eta baldintzak betez, ustezko egintzei buruzko ziurtagiria ez ematea, bidezkoa denean.
- o) Administrazio Publikoen kontratuei buruzko legezko arauetan jasotzen diren xedapenak haustea edo behar den bezala ez aplikatzea, gutxienez zabarkeria larria egon denean bitarteko.
- p) sekretu profesionala haustea eta karguaren ondorioz ezagutzen diren gaiekiko behar den bezalako isilpekotasuna ez gordetzea, Administrazioaren edo eraginpekoen aurkako kalteak sortuz.

84. Atala.– Honako hauek dira hutsegite larriak:

- a) agintariak zerbitzuari buruz emandako agindu edo oharrak ez betetzea,
- b) administratuak aintzakotzat ez hartzeagatikako hutsegite larria,
- c) zerbitzuetako tegi, gai edo agirietan, zabarkeriaz edo asmo txarrez, kalte handiak egitea,
- d) lantegietan iskanbilaren bat sortu edo parte hartzea,
- e) lanpostua dela eta, ezagutu daitezen gaiekiko duen lanbide-mailako isiltasun-obligazioa ez betetzea, Administrazioarentzako kalteko izan edo norbere onerako erabili daitezenean,
- f) agintariak, menpekoek egin ditzaten hutsegiteei amor-ematea,
- g) agintari, lankide edo menpekoekiko errespeto-falta larria,
- h) argi eta garbi legez kontrako diren txostenak egin eta akordioak hartzea, Administrazioaren edo herritarren kalterako eta oso hutsegite larriak izan ez daitezenean,
- i) elkartuezinen arloan, epeak eta prozedurei buruzko beste arau batzuk ez betetzea, honek elkartuezineko egoerari eustea ekar ez dezanean,
- j) zerbitzuen agizko iharduerari eragiten dion etekinik eza, oso hutsegite larria izan ez dadinean,
- k) legez jarritako abstentzio-arrazoirik ba denean, Administrazio-bidean parte hartzea,
- l) lanorduak zuritu gabe ez betetzea, guztiak batera hileko hamar ordu gutxienez izan daitezenean,
- m) agintekeria, lanpostuan aritzean,
- n) ordu-artarako sistemei ihes egitea edo, zuritu gabe betetzeke utzitako lanorduak jakitea eragozteko jarritako ekintzak edo omisioak,
- ñ) hiru hilabeteko epe-barruan, zuritu gabe lanera joan gabeko hirugarren hutsegitea, aurreko biak hutsegite arinagatik zigortu direnean,
- o) gaisotasun edo istripuren bat dela eta, hartu diren bajen zaintza eta artari buruzko arauak ez betetzea,
- p) gaiso edo istripu-itxurak eginez lanera ez joatea, eta

q) eguneko lanorduen barruan, zuritu gabe, lanpostutik aldegitia.

r) bi egun edo gehiagoz lanera joan gabe egotea bata bestearen ondoren, justifikaziodun kausarik egon gabe.

s) karguaren ondorioz ezagutzen diren gaiekiko isilpekotasun profesionala ez betetzea, falta larria ez denean.

t) zerbitzuko gaiei buruzko txostenak honako era honetan ematea, alegia, egiaren kontra argi eta garbi ez jokatu arren egia eraldatuta, esanahi aunitzeko, iluntasundun edo partzialtasundun hitzen bidez, edo egia aldatuta, egia osoa jasotzen ez duten terminoez baliatuz; horretaz aparte, egia iluntze horrek, norbere eta beste baten aldeko onura lortzea izan behar du xedetzat edo Administrazioari edo hiritarrei kalteak ekartzeko bide izan behar du.

u) medio edo baliabide ofizialez baliatzea edo norbanakoek erabiltzeko baimena ematea edo beste batzuei eskaintzea; garrantzi txikikoa delako, hutsegite arintzat kalifika daitekeenean izan ezik.

85. Atala.– Honako hauek dira hutsegite arinak:

a) hutsegite larria izan ez dadinean, lanorduak zuritu gabe ez betetzea,

b) zuripiderik gabe, egun batez lanera ez joatea,

c) jende, agintari, lankide edo menpekoekiko errespeto-falta txikia,

d) egitekoak betetzekoan atzerapena, zabarkeria edo nagikeria,

e) hutsegite larria izan gabe, zerbitzuko tegi, gai eta agiriak zaintzen izandako zabarkeria, eta

f) funtzionariaren eginkizunak eta obligazioak ez betetzea, oso hutsegite larritzat edo larritzat jo beharrekoak izan ez daitezenean.

86. Atala.– 1.– Hutsegite baten astuna neurtzeko eta ezarri beharreko zigorraren maila jartzeko, honako erizpide hauek hartuko dira kontutan:

a) asmoa,

b) zerbitzuan sortutako nahasmena,

c) Administrazioari edo administratuei egindako kalteak,

d) berriro hutsegitea, eta

e) eskuhartze-maila.

2.– Hutsegite larri edo oso larriegatik ezin ezarriko da zigorrik, horretarako egindako espedientearen indarrez izan ezik. Hutsegite arinegatik zigorrak ezartzeko, aurrez espediente egitea ez da beharrezko izango, errudunari entzuteko pausoa ematea izan ezik.

3.– Zigor-espedientei hasera ematearen eta bai horiei ebazpena ematearen berri ere, langilego-ordezkaritzako organuei eman beharko zaie.

4.– Araudiz arautuko da zigortze-prozedura.

## BIGARREN SAILA

### ZIGORRAK

87. Atala.– 1.– Honako zigor hauek ezarri ahal izango dira funtzionarioek egindako hutsegiteengatik:

- a) zerbitzutik aldentzea,
- b) kargutik kentzea,
- c) egitekoez gabetzea,
- d) egoitzaz aldatuzko leku-aldaketa,
- e) lansariak heinean kentzea, eta
- f) ohartaraztea.

2.– Nazio mailako gaitasuna duten funtzionarioei bakarrik ezarriko zaie kargutik kentze-zigorra, eta hutsegite larri edo oso larriengatik bakarrik ezarriko da.

3.– Oso hutsegite larriak egiteagatik bakarrik ezarriko da zerbitzutik behin-betiko aldentze-zigorra.

4.– Egoitza aldatuzko leku-aldaketa eta egitekoak aldi baterako kentzea barne izanezko zigorrak oso hutsegite larriak edo larriak eman daitezenean bakarrik ezarri ahal izango dira. Oso hutsegite larriagatik, egitekoak aldi baterako kentzea ekarriko duen zigorra ez da lau urtetik gorakoa izango, ez bi urte baino gutxiagokoa ere eta, hutsegite larriagatik ezartzen baldin bada, ez da bi urtetik gorakoa izango.

5.– Hutsegite arinak ohartaraziz bakarrik zigortu ahal izango dira.

88. atala.– 1.– Funtzionarioaren gain jausi daitekeen erantzukizun zibil edo penala barne dela ulertu behar da zentzabide-erantzukizuna.

2.– Funtzionarioen aurkako prozedura penal bati ekiteak ez dio eragozpenik jarriko, egintza berdinengatik aurre-informazioari edo zentzabide-espeditenteari ekiteari, eta, beharrezkoa izanez gero, egitekoez behin-behingo gabetu egingo dira espeditentepekoak eta bidezkoak izan daitezkeen kautelazko neurriak hartu ere bai. Hala ere, prozedura horiei buruzko behin-betiko erabakia, eremu penalean emandako epaiak sendespena jaso dezanean bakarrik emango da. Epai horrek bere baitan dituen eta probatutako egintzen deklarazioak Administrazioa behartu egingo du.

89. Atala.– 1.– Zentzapide-erantzukizuna, zigorra betez, hilez gero, hutsegite edo zigorrak indarra galduz gero, edo zigorra barkatuz edo amnistia emanez ezabatuko da.

2.– Oso hutsegite larriek sei urtera galduko dute indarra, larriek, bi urtera eta, arinek, hilabetera.

3.– Oso hutsegite larriengatik jarritako zigorrek sei urtera galduko dute indarra, larriengatikoek, bi urtera eta arinengatikoek, hilabetera.

4.– Zentzapide-zigorrak, langilegoaren erroldean erasota utziko dira. Ohar horiek ofizioz edo doakionak eskatuta, indarra galtzen dueneko epearen adinako aldia igaro ondoren eta, aldi horren barruan beste zigorrik jaarri ez baldin bada, kendu ahal izango dira.

90. Atala.– Zentzapide-zigorrak, horiek ezarri daitezenean erabakiak agintzen duenaren araber eta gehienez ere hiru hilabeteko epearen barruan beteko dira. Horiek horrela izanik ere, organu zigor-jartzaileak, doakionaren adostasuna jaso ondoren, zigorraren indar-aldirako legez jarritakoaz goragoko ez den aldirako, betetzea atzeratu ahal izango du.

## IV IDAZPURUA

### BITARTEKO FUNTZIONARIEZ, LANITUNEPEKO ETA BEHIN-BEHINGO LANGILEEZ

#### I ATALBURUA

##### BITARTEKO FUNTZIONARIAK

91. Atala.– 1.– Izendapenez eta presako arrazoiengatik, zerrendako lanpostu hutsak karrerako funtzionari bezala arte edo, horiek ez dauden kasuetan, horien ordezkotza egiteko sar daitezenez dira bitarteko funtzionari.

2.– Bitarteko funtzionari gisa lan egin izanak ez du funtzionari bilakatzeko edo lan-itunepeko langile finko izateko inolako lehentasun-eskubiderik ekarriko.

92. Atala.– 1.– Lanpostua karrerako funtzionari batek bete edo ordezkatua berriz laneratu eta, dena dela, izendapenaren zio izan ziren presakotasun edo behar-arrazoiak ezabatzean galduko du bere egoera bitarteko funtzionariak.

2.– Bitarteko funtzionarioek betetako lanpostuak onartuko den enplegurako lehenengo eskaintza publikoan sartu beharko dira, horien izendapena, lanpostua gordetik duten funtzionarioak ordezkatzeko egin ez balitz behintzat. Obligazio hori ez betetzeak, lanpostua besterik gabe ezabatuaraziko du eta, ondorioz, bitartean betetzen zuena kenduko.

93. Atala.– Funtzionarioen estatutu-errejimena ezarriko zaie bitarteko langileei, hauen lotura-egoez horretarako bide ematean eta, dena dela, bitarteko langileak betetzen duen lanpostuari izendatutako lansari osagarriak eta horren titulazio-taldeari dagozkion oinarritzkoak jasoko ditu.

#### II ATALBURUA

##### LAN-ITUNEPEKO LANGILEGOA

94. Atala.– 1.– Finkoak eta aldi baterakoak dira lan-itunepeko langileak.

2.– Lan-itunepeko akurapenez, lanpostu-zerrendetan lan-itunepekoentzat gordetako lanpostuak betetzen dituztenak dira lan-itunepeko langile finkoak.

3.– Lan-legeetan indarrean dauden ereduak atxikiz eta iraupen jakineko lanak egiteko akuratu-takoak dira aldi baterako lan-itunepeko langileak.

4.– Atal honetan esaten diren akuraketak idatziz egingo dira beti.

95. Atala.– 1.– Ez da enplegu-eskaintzan sartzen ez diren lanpostuak betetzeko epe-mugarik gabeko lan-akurapenik egiterik izango, ez eta lege honek ezartzen dituen prozeduren arabera aukeratu ez diren langileekin ere.

2.– Lan-itunepeko langileek ez dute funtzionarioentzat gordetako lanposturik betetzeko izango.

### III ATALBURUA

#### BEHIN-BEHINGO LANGILEAK

96. Atala.– 1.– Izendatuak izanagatik, ez karrerako funtzionariantzat ez eta lan-itunepeko langile finkoentzat ere gordeta ez dauden konfiantzazko edo aholkularitza berezikotzat joak izan, eta lanpostu-zerrendetan halakotzat jasota egon, eta aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostuak betetzen dituztenak dira behin-behingo langile.

2.– Lanposturako nahi bezala izendatu eta bertatik aldendu ahal izango dira behin-behingo langileak eta, dena dela eta beste gabe, lanpostutik kanpo geldituko dira horien izendapena egin zuen agintariak bere kargua uztean.

3.– Eusko Jaurlaritzak eta euskal Administrazio Publikoetako jaurtze-erakundeek, bakoitzak bere aginte-eremuan, behin-behingo langilegoari gordetako lanpostu-kopurua, horien zernolakoak eta lansariak zehaztuko dituzte.

4.– Behin-behingo lanpostuetan zerbitzu egitea ez da Funtzio Publikoan sartzeko edo barne-maitatan gora egiteko merezimendu izango.

### V IDAZPURUA

#### HIZKUNTZ NORMALKUNTZA

97. Atala.– 1.– Euskera eta gaztelera dira euskal Administrazio Publikoetako hizkuntza ofizialak, eta bi hizkuntzok erabiltzea bermatu beharko dute Administrazio horiek bere barneko zein kanpoko harremanetan.

2.– Gorago esandakoetarako, Administrazioetan dauden lanpostuetako bakoitzak bere hizkuntz eskakizuna jarria izango du. Hizkuntz-eskakizunak zehaztuko ditu lanpostua betetzeko eta hor lan egiteko beharrezko diren euskerazko hizkuntz gaitasun-mailak. Hizkuntz eskakizuna aginduzko ez den artean, euskeraz jakiteari, bai lanpostuak betetzeko eta kanpoko aukeraketak egiteko, merezimendu gisa eman beharko zaion balioa zehazteko soilik izango da.

3.– Hizkuntz eskakizuna aginduzko izaten hasten den egunetik aurrera, lanpostu bakoitzera iritsi eta hori betetzeko ezinbestekoa izango da hizkuntz eskakizuna betetzea. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak, Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak proposatuta, salbuespenez eta direneantxe soma daitezkeen inguruabarretan, lanpostu bateko titularra lanpostu horretarako ezarritako hizkuntz eskakizunetik jare uzteko baldintzak araudiz ezarriko ditu.

4.– Eusko Jaurlaritzak Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak proposatuta zehaztuko ditu hizkuntz eskakizunak, baita, aldizka, lanpostu bakoitzari ezarri beharreko erizpideak ere.

5.– Euskal Administrazio Publikoetan dauden lanpostuetako bakoitzari dagokion hizkuntz eskakizuna, baita hori aginduzko egiteko eguna ere, Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusiak txostena egin ondoren, Eusko Jaurlaritzak horretarako zehaztuko dituen erizpideen arauera, bakoitzeko jaurtze-erakundeak jarriko ditu.

6.– Bai hizkuntz-eskakizuna eta bai, hala behar izanez gero, hori indarrean jartzeko eguna ere, lanpostu-zerrendetan nahitaez azaldu beharko luketen berarizkotasunen artean sartu beharko dira.



7.– Hizkuntz eskakizunak nahitaez ezartzeko erizpideek Administrazio bakoitzean dauden lanpostuetarako berdintasunez eta heintasunez jokatzeko izango dute xede, horko egitekoari dagokion titulazioko Kidego, Eskala, maila edo Taldea dela eta, inolako bereizkuntzarik egin gabe.

8.– Euskal Administrazio Publikoak, horretarako beharrezko diren neurriak hartuz, beren zerbitzuko langileek behar bezalako hizkuntz gaikuntza izan dezaten saiaturiko dira.

98. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoen zerbitzuan sartzeko baztertze-indarreko saiotarako deietako edukia berritan sartutako langilez bete beharreko lanpostuei izendatutako hizkuntz eskakizunei egokituko zaie.

2.– Gorago esandakoetarako, lantoki baterako deia izatearen arrazoia hizkuntz eskakizuna nahitaezkoa duen lanpostua bada, sartzeko bete beharrekoa izango da hori. Hizkuntz eskakizuna, deiaren oinarri-arauetan zehazten denez, hautaketa-saioetan hori egiaztatuz, edo funtzionari izatera iritsi aurretiko gaitze-ikastaroak eta praktika-aldiak dirauen bitartean bete dadin eskatu ahal izango da.

3.– Aurreko idazatian oharmandakoaren arabera, hizkuntz eskakizuna gaitze-ikastaroen bidez burutu beharko litzatekeen kasuetan, hori bete beharra bai deia egiteko egunean hori nahitaezkoa izango litzatekeeneko lanpostuak betetzeko, baita aginduzko egiteko eguna gaitze-ikastaroa eta praktika-aldia bukatu baino lehenagokoa denetakoak betetzeko ere izan daiteke. Hauetan sartzeko, aurrez, baztertze-indarreko saioen bidez, lanpostua betetzeko eskatutako hizkuntz eskakizuna baino bi maila beheragokoa egiaztatua izan beharko da. Lanpostuari dagokion eskakizuna euskera gutxiago jakitea adierazizko bietako bat denetan, baztertze-indarreko saioetan euskerari merezimendu-balioa emango zaio.

4.– Baztertze-indarreko saioetan inolako hizkuntz eskakizunik bete beharrik izango ez balitz, euskeraz jakitea merezimendutzat hartuko da. Horren balioa lanpostuaren Kidego edo Eskalako bete beharreko lanpostuei izendatutakoaren artean nagusi den hizkuntz eskakizunaren eretxean neurtuko da, eta horren heinekoa ez da inoiz ere aukeraketa-aldi guztian lortu daitekeen gehienerako puntuazioaren ehuneko bostetik beherakoa, ez eta ehuneko hogeitik gorakoa ere izango.

Lanpostua betetzeko euskeraz jakitea merezimendutzat hartu beharko litzatekeen kasutan, aurreko lerroaldian jarritako irizpideari jarraituko zaio.

99. Atala.– 1.– Hizkuntz eskakizun ezberdinak bete direla egiaztatzeko, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeak erabakiko ditu kasu bakoitzean beharrezko izango den euskeraren jakintza haztatzeko saioen edukia eta nolakoa, eta horiek euskal Administrazio Publiko guztientzat berdinak eta guztiek ezarri beharrekoak izango dira.

2.– Euskal Administrazio Publikoetan sartzeko aukeraketa-aldietako epaimahaietan Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeari dagokion ordezkotzaren kaltetan gabe, Erakunde horretako ordezkari bat izango da epaimahaikide deian eskatutako hezkuntz eskakizuna egiaztatzeko saioetan. Lanpostuak betetzeko lehiaketak epaitzeko batzordeen osaketan ere, ordezkotza hori, ondorio beretako, beharrezko izango da.

## VI IDAZPURUA

### ORDEZKARITZA ETA PARTAIDETZA, LAN-BALDINTZAK ZEHAZTEKOAN

100. Atala.– 1.– Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioek ordezkaritza-organuak aukeratzeko eta lan-baldintzak zehazten parte hartzeko eskubidea izango dute.

2.– Idazpuru honetan jartzen diren ondorioetarako, zerbitzuak administrazio edo estatutu mailako loturaz egiten dituen langilegoa hartuko da funtzionarizat.

101. Atala.– Langilegoaren Ordezkariak eta Langilegoaren Batzordeak dira euskal Administrazio Publikoen zerbitzuko funtzionarien ordezkari-organuak. Horretan ezarri beharreko izan daitezen berarizko araupidez zuzenduko dira horien eraketa, aginte-aldia, iharduera, aginteak, bermeak eta eskubideak.

102. Atala.– 1.– Horretako eratuko diren negoziazio-mahaien bidez gauzatuko da funtzionarioek bere lan-baldintzak erabakitzekean izango duten partaidetza eta, horietan, dagokion Administrazio Publikoaren eta, Estatuaren eta Autonomi Elkartearen mailan indarrean dauden legeen arauera ordezkotzarik haundienekotzat jotzen diren sindikatuaren ordezkariak izango dira, eta baita ordezkariak eta langilego-Batzordeak aukeratzeko hauteskundeetan, bakoitzak bere eremuan, ehuneko hamarra edo gehiago lortu duten sindikatuak ere.

2.– Aurreko idazatian aipatzen diren euskal Administrazio Publikoen eta sindikaritze-erakundeen eta sindikatuaren ordezkariak bere zerbitzura dauden funtzionarien lan-baldintzak erabakitzeke akordio eta ituneak egin ahal izango dituzte.

3.– Izenpetzen duen organuaren aginte-eremuari estu-estu dagozkion gaiez egingo dira Ituneak eta horiek partaideak zuzenki lotuko dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren edo toki-erakundearen edo foru Administrazio dagokion organuaren osoko bilkuraren agintean gaiei buruz izango dira akordioak eta, baliozko eta eraginkorrak izan daitezen, berriek eraz eta berariz bakoitzak bere eremuan onartu eta horiek Euskal Herriko Agintaritze-Aldizkarian eta foru Diputazioei edo toki-erakundeei dagozkienean edo Kondaira-Lurraldekoan argitaratzea beharrezkoa izango da.

103. Atala.– Euskal Administrazio Publikoek eta ordezkotzarik haundieneko sindikaritze-erakundeek horretarako izenpetutako akordioz jarri ahal izango dituzte funtzionarien lan-baldintzak finkatzekoan sortutako auziak edo itune edo akordioak bete izanake bazteko bitartekotza-prozedurak.

## ERABAKI GEHIGARRIAK

### BIGARRENA

1.– Transferentzi bidez euskal Administrazio Publikoetara sartu diren edo sar daitezen beste Administrazio Publikoetako funtzionarioak, jatorrizko Kidegoaren eta izendatutako egitekoen araber, lan-izendapeneko Administrazio Kidego edo Eskaletan sartuko dira.

2.– Eskualdaketak direla-eta, Euskal Administrazio Publikoetarikoren batera sar daitezen funtzionarioak eta lan-kontratuko langile finkoak, hurrenez hurren, sartu ahal izango dira lan-kontratupekoen plantilan edo funtzionari gisa dagokien kidegoan, baina horretarako eskatu ohi diren titulazio mailako baldintzak bete beharko dituzte. Horretarako, horien lanpostuak lehen zuten zerbitzu-harremanarekin ez, beste batekin baizik sailkatu beharko ditu destinoko Administrazioak. Dagokien plantilan sartu ahal izateko, mugatutako aukeraketa-probak egin ahal izango dituzte Administrazioek; horietarako deialdiak ohiz kanpokoak izango dira eta behin bakarrik egingo dira. Eskualdaketa egin eta hurrengo sei hilabeteko epearen barruan egin behar da sailkapen berri hori.

Lanpostuen zerrendan sailkapena sartu eta hurrengo sei hilabeteko epealdiaren barruan egin behar da probetarako deialdia; izangaiak egindako zerbitzuak baloratuko dira bertan eta bai berorren gaitasuna edo trebetasuna finkatzeko diren beste edozein meritu ere. Beharrezkotzat jo eta ezagupenak kreditatzea xedetzat duten probak ez dira alde batera utzi behar, noski.

Aukeraketa-prozesuan parte hartu ez edo probak gainditu ez ditzatenek Administrazioaren zerbitzuan jarraituko dute lehengo harremanei eutsiz. Plaza horiek ezabatu beharrezkotzat joko dira.

### HIRUGARRENA

1.– Autonomi Elkarteko Administrazioan sartu-berri diren funtzionarioei Gizarte Segurantzako errejimen orokorra jarriko zaie.

2.– Transferentzien bidez, edo lekuz aldatzeko legez jarritako bideak erabiliz euskal Administrazio Publikoetara sar daitezten funtzionarioek jatorrizkoan zuten gizarte-emendioko errejimenari eutsiko diote.

3.– Euskal Administrazio Publikoak horietako funtzionarioen osasun-sorozpidetza herri-osasuneko sistemaren bidez ematen saiatuko dira, bakoitzaren gizarte-emendioko errejimenari kontutan izanik hori ahal bada behintzat.

### LAUGARRENA

Lege honetan Kidego eta Eskalei buruz egiten diren aipamenak Foru Diputazioetan eta Udal Batzarretan dauden Eskalei, Azpieskalei eta, hala badagokio, Klase eta Espezialitateei buruz egindakotzat joko dira; hala ere, bi azkenengo hauek sortu ahal izango ditu organu eskudunak.

### BOSKARRENA

Eusko Legebiltzarrak lege honetan agindutakoari egokituko dizkio bere zerbitzuko langilegoaren Estatutoak.

### SEIGARRENA

Grebarako eskubideaz baliatu daitezten funtzionarioek ez dute egoera horretan egondako aldiko lansaririk jasoko, hala ere, egin dadin diru-kenketa ez da inoiz zentzapidezko zigor izango, ez eta gizarte-zerbitzuei dagokien errejimenari ere ez dio eragingo.

### ZAZPIGARRENA

Ermaidunak, euskal Administrazio Publikoen zerbitzura sartzeko, egitekoak betetzeko gaitasun-baldintzak betetzen badituzte, gainerako funtzionario nahikoen aukera beraz onartuko dira.

Langile ermaidunek egiteko beharrezko liratekeen denbora eta baliabide egokiak jarriko dira baztertze-indarreko saioetan, horrela, saioaren edukia ez indargabetzez gainera, saioan eskatu beharreko gaitasun-maila ere gutxitzen edo murrizten ez bada behintzat.

Enplegu publikoaren eskaintzetan, euskal Administrazio Publikoek, horretarako jarritako lanpostu hutsen ehuneko hiru baino gutxiagokoa ez den kupoa ehuneko hogeita hamahiruko edo haundiagoko ermaidun-maila duen langilegoz betetzeko gordeko dute, horri dagokion Administrazioiko giza-baliabide guztien ehuneko bi bete arte eta hori, baztertze-indarreko saioak gainditu

eta, horien ermantasun-maila eta dagozkien lanak eta egitekoak betetzeko duten egokitasuna, araudiz ezar dadinean, bere garaian bermatzen badute.

#### ZORTZIGARRENA

Lege hau indarrean jarri aurretik izendatutako behin-behingo langilegoa, lege honetan bertan langilego horri ezarri behar zaizkion manuen menpe geldituko da, bere kasuan, izendatzeko erabilitako araupideen esanera, bidezko izan dakizkion eskubideak errespetatuz.

#### BEDERATZIGARRENA

Dagozkien aginte-eremuen esparruan eta horietako bakoitzak bere-bereak dituen ezaugarriei begirune izatearen kaltetan gabe, Euskal Administrazio Publikoek beren zerbitzuko langilegoaren lan-baldintzen eta lansarien kidekaketa ordezkotzarik haundieneko sindikaritze-erakundeak partaide izanez bilatuko dute.

#### HAMARGARRENA

Herrizaingo-Saileko Ertzaintzaren Teknikazko Talde Laguntzailearen lanpostuak, lan-itunepeko langilegoarentzat gordetakotzat sailkatzen dira.

#### HAMAIKAGARRENA

Euskal Autonomi-Ertzaintzako funtzionarioek lege honetako I Idazpuruko I eta II Atalburuetan; II Idazpuruko V Atalburuan; III Idazpuruko I, II eta VII Atalburuetan eta V Idazpuruan agindutakoa izango dute jaurpide, eta, horietan oharteman gabekoetan, lege honetan ematen diren sortarauei begirune izanez eta Euskal Herrirako Autonomi Estatutuan eta ezarri beharreko gainerako legeetan ohartemandakoaren arauera, Eusko Legebiltzarrak egin dezan ertzain-egitekoaren egitura eta beharrekin bat etorritzko legea.

#### HAMABIGARRENA

1.– Mediku langilegoaren Estatutu juridikoan, Gizarte Segurantzako osasun-erakundeetako medikuez besteko osasun-langilegoaren Estatutoan, Gizarte Segurantzako osasun-erakundeen zerbitzura diharduen osasun-langilegoaz bestekoaren Estatutuan, baita abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko Hamaseigarren Gehigarritzko Erabakiak dioen mediku aholkularien osasun-Kidego eta Eskaletakoan araututako Gizarte Segurantzako langilegoa ere, apirilaren 25eko 14/1986 Legean ohartemandakoen arauera eta honetan adierazitako printzipioen esparruan, Eusko Legebiltzarren Legez zuzenduko da. Bien bitartean, aipatu langilego hori, lege honetako II, IV, V eta VI Idazpuruetan eta bakoitzari dagokion Estatutuan dauden oinarrizko erabakietan agindutakoak zuzenduko du.

2.– Erabaki honek dioen langilegoak, lanpostuen zerrendetan erabaki dadinaren arauera bete ahal izango ditu osasun-Administrazioko lanpostuak.

3.– Toki-osasunaren zerbitzurako osasun-Kidego Teknikoetako langilegoak, lehen-sorosketako ekipoetan sartu arte, bere berarizko lansari-errejimenari eutsiko dio.

## HAMAHIRUGARRENA

1.– Lege honen II. Idazpuruko IV. Atalburuan eta III. Idazpuruko III. eta IV. Atalburuetan agintzen dena ez zaie irakaskuntzako funtzio publikoa eratzen deneko Kidego eta Eskaletako funtzionarioei ezarriko.

Unibertsitatekoaz besteko irakaskuntzako funtzio publikoan sartzea, lanbidean eta barne-mailan gora egitea, eta haren Kidegoen eta Eskalen birreraketa, abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko Gehigarritzako Erabakietako Hamaboskarrenaren 10. idazatian oharrekin denez arautuko da, eta lege honetan ezarritako erizpideen barruan, hezkuntza-sistemaren egitura eta beharrezkoen egokitzeko zaien Eusko Legebiltzarreko legez. Bitartean, Kidegok eta Eskalok, Eusko Jaurlaritzako dekretuz horretarako finka dadin lan-izendapenaren osagarri-maila izendatua izango dute, eta erabaki honetako eta alor bakoitzari buruz indarrean dauden gainerako erabakietako arauak ere ezarriko zaizkie.

2.– Irakaskuntzako lanpostuak, lanpostuen zerrendetan zehaztutakoaren arabera, irakaskuntzako Kidego eta Eskaletako funtzionarioek bete ditzuten. Salbuespen gisa, bere izaera dela eta, jakineko ikasketa-heziketari egokitzen ez zaizkion eta egon dauden Kidego edo Eskalatakoren bati izendatzekoak ez diren izaera bereziko lanpostuak lan-itunepeko langileentzat gorde ahal izango dira.

4.– Irakaskuntzako funtzionarioek, lan-zerrendetan zehaztutako kasu eta baldintzetan bete ahal izango dituzte hezkuntz Administrazioari lanpostuak, horietango iraupen-aldia ez bait da norbere gradua sendotzeko kontatzerik izango.

5.– Irakaskuntzako funtzionarioek 65 urte bete dituzteneko ikasturtearen amaieran hartu ahal izango dute, nahi badute, jubilazioa.

6.– Irakaskuntzako funtzio publikoa birrantolatzen ateratako Kidego eta Eskalentzat gordetako lanpostuak bitartekotzan bete ditzaten langileek, han horretako jarri daitezten manuen arabera, Aldi baterako Laugarren Erabakian oharremandako eran, lanpostu horietara iritsi ahal izango dute.

7.– Ekainaren 29ko 10/1988 Legean oharremandako bidea eginez, herri-eskolan sar daitezten ikastolen zerbitzuko irakaskuntza-langileek irakaskuntzako funtzio publikoa birrantolatzen ateratako Kidego eta Eskalatan sartu ahal izango dute. Erabaki honetako lehenengo lehenaldian esaten den araupidetza-esparruan horretako kontutan izan beharko diren neurriak edukiz Aldi baterako Seigarren Erabakian oharremandakoen antzekoak izango dira, sartzen diren Kidego edo Eskalan dagokien eduki eta norainokoari buruzkoan eskuratutako eskubideen inolako murriztapenik gabe. Bitartean, langilego horrek lege-aldetik hasierako egoeran jarraituko du eta, nolana ere, funtzionari izatera iristen ez bada, horri eutsiko dio. Aintzin-oharpe hauek, Autonomi Elkartearen Administrazioari lege hau indarrean jarri baino lehenagotik eskuratutako, ikastolen zerbitzuko langileei ere ezarri beharrekoak izango dira.

## HAMALAU GARRENA

Lege hau nazio mailako gaitasuna duten funtzionarioei, hauek dagokion Udalbatzarrekiko duten iharduneko harremanetik sortzen diren alderdiei buruzkoan ezartzen zaiela ulertuko da, eta Estatuko Administrazioarekin duten harreman-zerbitzuari darizkion arloetan ezarri beharreko berarizko arauen kaltetan gabe eta hauek kontutan izanik.

## HAMABOSKARRENA

Lege honetan oharmandakoetarako, lizentziaturako hiru ikasturte gaindituta izatea unibertsitate-diplomadun tituluaren baliokide izango da.

## HAMASEIGARRENA

C Taldeko Kidegoetan eta Eskaletan sartzea, dagokion jardun-eremuko edo eremu funtzionaleko D Taldeko Kidego edo Eskaletatik, barnesustapen bidez bideratu ahal izango da eta lehiaketa- oposizio bidez burutuko da. Karreraren eta betetako lanpostuen bidez lortutako merituak, formazio-maila eta antzintasuna baloratuko dira lehiaketa-aldian.

Ondorio horietarako, lege honetako 43. atalean finkatzen den titulazioa eskatuko da edo hamar urteko antzintasuna D Taldeko Kidegoan edo Eskalan, edo bost urteko antzintasuna eta formazio-ikastaro berezi bat gaindituta izatea. Irizpide objektiboak erabiliko dira ikastaro horretan parte hartu ahal izateko.

## HAMAZAZPIGARRENA

91. atalean xedatzen denaren kaltetan gabe, Autonomi Elkarteko Foru eta Toki Administrazioek bitarteko funtzionariak izendatu ahal izango dituzte aldibaterako programak garatu ahal izateko.

## HAMAZORTZIGARRENA

1.– Administrazio Publikoek, lanaren banaketa sustatzeko eta lanorduak berrerratzeko, lanaldia murrizteko aukera eman diezaiekete lege honen aplikazio-eremuan dauden langileei, soldata ere dagokion heinean murriztuko zaiela. Beharrezkoa izango da, baina, giza baliabideen plangintzak eta zerbitzuko beharrianek horretarako aukera ematea. Administrazio bakoitzak dituen aurrekontu- muga barruan egin beharko da hori.

2.– Murrizketa horretaz baliatzeko baldintzak Administrazio Publiko bakoitzeko organu eskudunak arautuko ditu, euren berezitasunak kontuan hartuz. Honako hauek bete beharko dira nahitaez:

- a) Gehieneko eta gutxienezko murrizketa.
- b) Egoera horretan gutxien egon beharreko denbora.
- c) Langileek egun osoko lanaldira itzultzeko duten eskubidearen bermea eta mugak.

3.– Giza baliabideen plangintzak eta zerbitzuko beharrianek hala eskatzen dutelako, emandako lanaldi-murrizketa atzera bota dezake Administrazioak. Aldez aurretik doakionari entzun ondoren, arrazoitutako erabakiz egingo du hori.

## HEMERETZIGARRENA

Atzerriko lanpostuetarako emandako zerbitzualdiak bost urtekoak izango dira gehienez ere.

## ALDI BATERAKO ERABAKIAK

### LEHENENGOA

Autonomi Elkarteko Administrazioak, lege hau indarrean jartze-egunetik urtebeteko epearen barruan eta horretan ezarritako manuen arauera, administrazio nagusiko bere lanpostuen egitekoak azertu eta sailkatuko ditu, funtzionarioei, lan-itunepekoiei eta behin-behingo langilegoari dagozkienak zehaztuz; lanpostu-zerrendak eratu eta onartuko ditu, horietako bakoitzari izendatutako lan-izendapeneko osagarriaren maila eta, hala badagokio, berarizko osagarri gisa dagokion zenbatekoa adieraziz; eta, horien arauera, lan-itunepeko Kidego guztien aurrekontu-zerrendak ezarriko ditu eta tokiz aldatutako lantoki-zerrendak horietan sarturik geldituko dira.

### BIGARRENA

Jaurlaritzak, aurreko erabakian adierazitako epearen barruan, Autonomi Elkarteko eta horren Erakunde Burujabeetako Administrazio Nagusian beren zerbitzuak betetzen ihardun eta horra trasferentzi bidez heldu direnak dagokien Kidegoan sartzea erabakiko du. Funtzionario horiek, betetzen ari diren lanpostuetako izendaturik jarraituko dute eta sartu direneko Kidegoari dago-kion Taldeko oinarrizko lansariak eta betetzen duten lanpostuari izendatutako osagarriak jasoko dituzte. Lan-izendapenagatiko osagarrizko maila haien graduari dagokiona baino apalagoa baldin bada, nolnahi ere, norbere graduari dagokiona jasoko dute.

### HIRUGARRENA

1.– Abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko Aldi baterako Seigarren Erabakiko laugarren idazatian agindutakoaren eta Euskal Autonomi Elkarrekin administrazio-langilegoa akuratzeari buruzko apirilaren 6ko 72/1983 Dekretuaren babespean, administrazio horren zerbitzura, euskal Funtzio Publikora sartzeko zain dagoen aldarreko lankidetzarako administrazio-kontratua duen langilegoak, bere egitekoak nola sailkatu diren kontutan harturik, funtzionario edo lan-itunepeko langilego finko izatera iritsi ahal izango du, horretako egin daitezzen osagarrizko saioen bidez, dagokion Kidego edo Eskala edo lanbide kategorian sartuz.

2.– Aurreko idazatian oharremandako ondorioetarako eta lanpostu-zerrendak onartuak izan ondoren, Autonomi Elkarteko Administrazioak merezimendu-lehiaketarako deia egingo du eta honetan, iharduneko zerbitzuan dihardutenek hartu ahal izango dute parte, baita borondatezko lan-utzialdia edo zerbitzu berezien kideko egoera aitortu zaien ere. Honetan parte hartzeko gai zein langilego den adierazi beharko du deiak, kasu bakoitzean zein Kidego edo lanbide-kategoriatan sar daitezkeen zehaztuz.

A edo B Taldeetako Kidegoetakoren batera sartutakoek Talde bereko beste Kidegoan sartzea eskatu ahal izango dute, eta hori eman, aurrekontuetan diruz hornitutako lanpostu hutsik baldin bada eta doakionak hor sartzeko eskatzen diren eskakizunak betetzen baditu emango zaie. Aukera hori, lan-tokiaz jabetzeko egunaren biharamonetik kontaktzen hasi eta gehienera hiru urteko epearen barruan behin bakarrik erabili ahal izango da.

Aukeraketa-aldian parte ez hartzeak edo hori ez gaintitzeak, besterik gabe, akurapenezko harremanaren ezabapena ekarriko du eta hori, nolnahi ere, lehiaketa ebatzi ondorengo hiru hilabeteren barruan gauzatu beharko da. Hala ere, horren eraginpeko langilegoak funtzio publikoan sartzeko, gero izango diren deietan parte hartu ahal izango du eta, Aldi baterako Laugarren erabakian sartzen den lanarigoarentzat hor oharremandako modu eta norainoko beraz baloratuko zaizkio egindako zerbitzuak.



3.– Egindako lehiaketaren ondorioz funtzionari edo lan-itunepeko izatera iritsi daitezen izan nahikoek izendatuak lituzketen lanpostuak betetzen jarraituko dute.

4.– Aurreko idazatietan agindutakoa bete artekoan aldarteko lankidetzak-akurapena duen langilegoak gaurregun duen zerbitzu-harremanari eutsiko dio, betetzen ari den lanpostuetan, horien izaera dena dela, iraungo du eta bere lansariak lege honetan adierazitako errejimenari egokituko dizkio.

### LAUGARRENA

1.– Lege hau indarrean jartzean, Autonomi Elkarteko Administrazioan bitarteko edo aldi baterako lankidetzako administrazio-akurapenezko den langilegoak, honen egitekoek izan duten sailkapenaren arauera, funtzionari edo itunepeko langilego-izaera hartu ahal izango du norgehiagoka-lehiaketa jarezi, eta lehiaketa horretan, langilego horrek edozein Administrazio publikotan betetako zerbitzuei, norgehiagoka-aldian lor daitekeen gehienera ehuneko berrogeita bosteko puntuazioaren balioa emango zaie.

Baloraketa hori, lege hau indarrean jarri ondoren gerta daitezen enplegu publikorako lehenengo hiru eskaintzetatik datozen deietan erabiliko da.

Aurreko lerroaldian esaten diren deiak egin ondoren, funtzionari edo lan-itunepeko izatera iritsi ez daitezenez gehienera horietatik azkenekoa ebatzi ondorengo hiru hilabeteko epearen barruan utziko dute Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzua.

2.– Aurreko idazatian agindutakoa bete arte, aldi baterako lankidetzarako den bitarteko eta akuratutako langilegoak gaurregungo bere zerbitzu-harremanari eutsiko dio, betetzen ari den lanpostuetan iraun egingo du eta bere lansariak lege honetan oharmandako errejimenari egokituko dizkio. Funtzionari edo lan-itunepeko izatera iritsi ondoren, lehenagotik izendatuak dituzten lanpostuei atxikirik geldituko dira.

### BOSKARRENA

1.– Lege haun indarrean jarri ondorengo urtebeteko epearen barruan, gainerako euskal Administrazio Publikoek, funtzionari eta lan-itunepeko langilegoari dagozkion lanpostuak zehaztuz, beren lanpostuak sailkatuko dituzte; beren osagarritzko lansariak finkatuz, horien lanpostu-zerrendak eratu eta onartuko dituzte; zerrenda horiek haiek kontutan izanez hornituko dituzte diruz aurrekontuetan; eta, langilegoaren lansari-errejimenari lege honetan agindutakoari egokituko diote.

2.– Trasferentzien ondorioz foru Diputazioetako zerbitzuetan sartu diren funtzionariak, lege honetan ezarritakoari atxikiz, beren jaurtze-erakundeek erabaki ditzaten Eskala eta Subeskaletan sartuko dituzte Diputazio horiek.

3.– Lege hau indarrean jartzean, azaroaren 25eko 27/1983 Legea betez burutu diren trasferentzien ondorioz, foru Diputazioetan zerbitzu egiten ari diren aldarteko lankidetzako administrazio-akurapenezko langileek eta bitarteko eta aldi baterako lankidetzako administrazio-akurapenezkoek, Aldi baterako Hirugarren eta Laugarren erabakiei atxikiz, bakoitzari dagokion foru administrazioan funtzionari edo lan-itunepeko izatera iritsi ahal izango dira.

### SEIGARRENA

1.– Euskal Administrazio Publikoetako funtzionari eta lan-itunepeko langile finko izanik, bere zerbitzu-harremanari dagokionaz bestelako izaerakotzat sailkatutako lanpostuak dituztenek

hurrenez-hurren, eta beti ere horretako eskatutako baldintzak betetzen badituzte, lanbide-zerrendan sartu edo, salbuespen gisa eta behin bakarrik, dagozkien Administrazioek jarri ahal izango dituzten baztertze-indarreko eta mugatutako saioen bidez, dagokien Kidegoko funtzionari izatera iritsi ahal izango dute.

Lanpostu-zerrenda onartu ondorengo sei hilabeteen barruan egingo da deia eta, hor, betetako zerbitzuak eta izan nahikoaren gaitasun edo egokitasuna erabakitzea bideratutako beste edozein merezimendu balioztatuko da eta, hori, beharrezkotzat jo daitezzen ezagutzak ziurtatzeko diren beste saioen kaltetan izan gabe.

Lehiaketa-bide horretan parte har ez dezatenek edo hori gainditu ez dezatenek, zuten harremanarekin jarraituko dute Administrazioaren zerbitzuan, horren lanpostuak kendu beharrezkotzat hartuz.

2.– Aurreko idazatian aipatutako lehiaketaren ondorioz funtzionari edo lan-itunepeko izatera iristeak, besterik gabe, lanpostu hutsaren aldaketa ekarriko du eta Kidegoaren zerrendarenetan edo, hala gertatuz gero, lanitunepeko zerrendarenean sartuko dira.

### ZAZPIGARRENA

1.– Autonomi Elkarteko Aurrekontuen legeek hori erabaki arte, lan-izendapeneko osagarrikoaren maila bakoitzari dagozkion hasierako diru-zenbatekoak Jaurlaritzak araudiz erabakiko ditu.

2.– 79. ataleko 3. idazatian oharmandakoa bete arte, berarizko osagarriko gisa lanpostu bati izenda dakion diru-zenbatekoak, ez du berorri dagokion lan-izendapeneko osagarrikoaren mailari dagokiona gainditzetik izango.

### ZORTZIGARRENA

Aldi baterako Erabaki hauen babespean funtzionari edo lan-itunepeko izatera iritsi dadin langilegoari, hirurteko edo antzinatasunaren ondorioetarako, edozein Administrazio publikotan egindako zerbitzuak aitortuko zaizkio.

### BEDERATZIGARRENA

Lege honetan oharmandako lansari-sistema dela eta, jasotzen ari diren lansari finko eta aldizkakoekiko murrizketaren bat gertatuko balitz, horren eraginpeko langilegoak diru-aldeagatik norbere eta behin-behingo osagarria jasotzeko eskubidea izango du, osagarri hori bere baitagarria izango dela.

### HAMARGARRENA

1.– Norbere gradua lortzeko beharrezko den aldia, 1985.eko urtarrilaren lehen-egunetik eta, nolana ere, funtzionari bilakatzen denetik hasiko da kontatzen.

Horretako, egun horretatik betetzen ari dadin lanpostuari dagokion Administrazioak izendatzen dion lan-izendapeneko osagarrikoaren maila kontatuko da. Lanpostu-zerrenda onartzearen ondorioz, lanpostuari izendatutako maila aldatzen bada, 45. ataleko 5. idazatian ezarritako arauari atxikiko zaio.

2.– Lanpostu-zerrenda onartzetik bi urte igaro arte, lanpostuak hornitzeko prozedurak inolako gradurik kontutan hartu gabe erabakiko dira.

## HAMAİKAGARRENA

10. ataleko 2. idazatian aipatutako prozedura-arauak araudiz erabakitzen ez diren artean, haren lehenengo idazatian emandako ahalmenen erabilera Autonomi Elkarteko Administrazioan indarrean dauden prozedurei egokituko zaie.

## HAMABIGARRENA

Hamaikagarren Erabaki Gehigarriaren lehenengo idazatian oharmandako berarizko legea eman arte eta hor erabaki dadinaren kaltetan gabe eta horren baitan, Osakidetza/Euskal Osasun-Zerbitzuaren menpe dauden irekitako edo itxitako Osasun-Erakundeetako lanpostuak, horretan iharduteko eskatzen diren betebeharrak bete ditzatenean, horietako izendatutako langilegoak bete ahal izango ditu aukeran.

## HAMAHIRUGARRENA

Eusko Jaurlaritzak, lege hau indarrean jartzen den urtearen barruan, berarizkotasunez eta behin bakarrik, Autonomi Elkartearen Administrazioarako enplegu publikorako ohizkoaz besteko eskaintza egin, eta hor sartzen diren lanpostuak lehenbaitlehen betetzeko deia egin ahal izango du. Dei horietan, 55. atalean jarritakoaren arabera, Aldi baterako Bigarren Erabakian esaten diren funtzionarioek, beharrezko lanpostuak gordez eta beti ere horretako beharrezko diren titulazio-baldintzak betetzen badituzte, barne-mailatan gora egitea ahalbideratuko du.

## HAMALAU GARRENA

Lege hau indarrean jarri ondorengo hogeita hamar egunen barruan, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailburuak Diputatu Nagusiei, euskal toki-erakundeetako elkarte edo federakuntzei eta sindikaritza-erakundeei Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluko ordezkariak hautatzeko eskea egingo die, eta hori, horretako eskea egiten zaienean kontatzen hasiko den hogeita hamar eguneko epearen barruan egin beharko da. Hautaketa egin, edo horretako jarritako epea amaitu ondoren, Lehendakaritza, Zuzentza eta Autonomi Garapeneko Sailburuak Kontseiluaren lehenengo bilkurarako deia egingo du.

## HAMABOSKARRENA

Hamaikagarren Erabaki Gehigarrian oharmandako legea egin artean, Autonomi Ertzaintzako funtzionarioek, lege honetan oharteman gabekoetarako, ezarri beharko litzaiekeen araupidetza izango dute jaurpide.

## INDARGABETZEKO ERABAKIA

Lege honetan jarritakoaren aurkako lerrun bereko edo beheragoko erabaki guztiak indargabeturik gelditzen dira.

## AZKEN ERABAKIAK

## LEHENENGOA

Lege hau garatzeko beharrezko izan daitezen erabaki guztiak emateko baimena ematen zaio Jaurlaritzari.

## BIGARRENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritza-Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamonean jarriko da indarrean.